

K...eta
Kitto!

2019-X-25 1117 zkia.



PENTSIO duinaren alde BIDEA eginez

dica® **eibar**

URRATEGIINTERIORISMO
www.urrategiinteriorismo.com
 Arragueta 27
 Telf: 943 857 244

s
u
k
a
l
d
e
a
k

d
i
s
e
i
n
u
a





Zezenbide
S.COOP.

EIBAR

**LASTER
ERAIKIKO DIRA**



**AUKERA
EZIN
HOBEA**

9



ETXEBIZITZA KOOPERATIBAN

**HIRU LOGELAKO ZORTZI ETXEBIZITZA
ETA LOGELA BAKARREKO
ETXEBIZITZA BAT**, euren trasteleku eta
sukalde ekipatuarekin.

Erdi-erdian, Isasi eta Zezenbide
kaleetako izkinan. **Untzaga Plazatik
metro gutxi batzuetara.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



Larragest
AGENCIA INMOBILIARIA

bankoá CAE
Groupe
Crédit Agricole

943 20 00 12 / 660 976 156

www.zezenbide.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Riki Izarra

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

OHARRA

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gaintzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa



**ORDU
ALDAKETA**



ASTEBURUKO zapatatik domekarako (urriak 29) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara.
Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak.
Neguko ordutegiak martxoaren 25era arte irauango du, udakoa berriro indarrean jarri arte.

**DATORREN ASTEAN EZ DAGO ALERIK
barkatu eragozpenak**

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOLDAU.- Antolatu, eratu, zerbaiti itxura eman. "Azkenian be, moldau dot nerebixan asmua". Konpondu. "Moldau dot erlojua, eta oiñ ondo dabill". Osatu, sendatu. "Moldau jata apurtu neban eskuturra". Egokitu, ohitu. "Beti moldatzen zan laguntzailliak billatzen".

astean esanak

"Horizonte moduan 'haztea' duen edozein ekonomia mota kaltegarria da gizakiarentzat. Helburua mugatua balitz zentzua izango luke, baina orokorra denean harraparitzan amaituko du. Beharrak sustatu eta hedatzea bizitza jakintsuaren aurka doa; ez hori bakarrik, bakeari eta askatasunari ere erasotzen dielako. Eta orain aldaketa klimatikoari aurre egiten? Interneten erosiz gertuko dendak itxi eta herriak bizitza barik lagatzen ditugun bitartean?"

(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)

"Umeak, autonomia bat izateko, mugak eduki behar ditu, eta horiek eskolaren eta gurasoen artean koordinatu behar dira. Gazte lokalen erabilerak badu nolabaiteko lotura gazteen intoxikazioarekin; eta, neurri handi batean, gurasoen errua da, zenbait ohitura aldatu behar direlako. Haur batek zerbait ondo egiten ez duenean, hurbileko norbait behar du ateratzen zaizkion mamuak lasaitzeko. Haurrak ezin dira etxeko errege-erreginak izan; norbait izatekotan, gurasoak izan beharko lukete. Aurrekoa gutxi balitz, haur askok eskolan egiten dute ganorazko jatordu bakarra, atera kontuak"

(TXABI TXAKARTEGI, PEDIATRA)

"Zentro politikoa elite politiko eta ekonomikoek euren pribilegioak autojustifikatzeko sortutako amets hutsa da; herritarrek espazio sinbolikoekin ilusionatzeko eskuin politikoa erabiltzen duen mozorro perfektua. Beste horrenbeste gertatzen da kontsentsuarekin. Mitifikatu egin da: haren inguruan ardatzu behar da demokrazia. Sarritan erakutsi den bezala, kontsentsua ez da beti gatazkak konpontzeko biderik justuena. Egia eta justizia lortzea ez da zerbait mistiko edo matematikoa. Kontua ez da bi muturren artean dagoen erdibidea hautatzea, baizik eta konponbide demokratikoa hautatzea, beto eskubiderik gabe"

(TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA, IKERTZAILEA)

'Kaxa' proiektuak irabazi dau On Ekin sarixa



Marta Prol, Marina Crucelaegui eta Jone Barandikaren 'Kaxa' proiektuak lortu dau Ekingunek antolatzen daben On Ekin sarixa. Sormenaren eta mugimenduaren bittartez osasun fisiko eta emozionala sustatzen dittuan diziplina anitzeko alkartia da 'Kaxa' eta 2.500 euroko sarixa jaso dau. Nuria Robleño eta Sofia Machinen 'Royo' proiektuak, barriz, bigarren sarixa (1.000 euro) eskuratu eban eta 'Vluber' izeneko proiektuak hirugarrena (300 euro). Ekingunek "potentziala daken eta aldía markatzen daben negozio bideragarriak" saritzen dittu On Ekin lehiaketan, eta zazpigarren ediziño honetara 22 proiektu aurkeztu dittue.

Gripiaren kontrako txertua ipintzeko sasoia da

Urriaren 14ik dago martxan Osakidetzaen 2019-ko gripiaren kontrako txertaketa-kanpaina. Aurtengo goiburua "Txertoa jartzeko unea da eta badakizu" da eta Osasun Sailak 1'4 milioi euro inbertidu dittu 400.000 dosi baiño gehiago erosten. Aurreko urteetan bezala, 65 urtetik gorak, haurdun daguezenak eta gaixotasun kronikuak dittuenak hartu ahal izango dabe txertua, "osasun konplikaziñorik ez izateko".



Txertua ipiñi nahi dabenak bere Osasun Zentrura jo bihar dau, hitzordua eskatzeko. Nekane Murga Osasun sailburuak kanpainaaren aurkezpenian azpimarratu ebanez, txertua "segurua eta eraginkorra" da, gripiaren aurrian dagan "prebenziño-neurri onena". Aurten, barritasun modura, Larrialdi eta Etengabeko Arreta Gunien itxarongelak maskaren euskarrak izango dittuela azaldu eben.

Asteburuan ospatuko dabe 34. urteurrena lpuuako jubilauek

lpuuako jubilauek etxiaren 34. urteurrena ospatzeko jarduera berezixak antolatu dittue astebururako: bixar 18:00etan jubilauek etxeke aretuan piskolabisa emongo detse bazkidieri eta oparixak zozketatuko dittue. Eta domekan, barriz, 12:00xetan San Pio X.aren elizan hildako bazkidien aldeko mezia ospatuko dabe eta, ondoren, 14:30xetan, Unzaga Plaza hotelian bazkaldu. Bertan 85 urteko bazkidieri omenaldixa egingo detse. Bestalde, aurreko astian zihar jokaturako karta-joko txapelketetako irabazliak hónek izan dira: musian, Antonio Gonzalez eta Pedro M. Castillo eta Jose



se Rubio eta Jose Guinea; tutian, Marcelo Larrea eta Jesus Gonzalez eta Marisa Aragon eta Felisa; briskan, Antonio Herrero eta Benjamin Nieto eta Mariasun Vicario eta Elena Clavero; seixetan, Nieves Madinabeitia eta Margari Perosanz; eta txintxoian, Isabel Cabrera eta Garbiñe Azkarraga. Sarixak zapatu arratsaldeko ekitaldixan banatuko dittue.

Kurtso barrixa hasteko ekitaldixa egin eben lkasten alkartekuak

Barixakuan hasi eban lkastenek 2019-20 ikasturtia, bazkide barrixeri eta Debarreneneko Esperientzia Eskolako ikaslieri ongiatorrixa emoteko Armerixa Eskolan egindako ekitaldixan. Bertan Miguel de los Toyos alkartia, Ani Alberdi lkastenen presidentia eta Ana Garetxana lkastenen ordezkariak egin eben berba eta, horrekin batera, Aitor Santa Marinak lkastenen webgune barrixa aurkeztu eban eta La Novena lkastenen antzerki taldiak Esperientzia Eskolia zer dan azaldu zetsen juandako guztieri. Debarreneneko Esperientzia Eskolan kurtso honetarako izena emon daben ikasliak hamaseigarren promoziónua osatuko dabe eta klasiñ 24 ikasle, 17 andra eta 7 gizon egongo dira. Jatorrixari begira, Eibar, Mendaro, Ermua eta Ondarruko ikasliak egongo dira. Astian hiru egunetan juango dira klasiñ: martitzenetan eta eguaztenetan 09:30xetatik 12:30xetara Untzagako jubilauek etxian eta egunetan, barriz, 10:00etatik 12:00xetara Armerixa Eskolan.



Juan Luis Mardaras Eibar foball taldeko presidente ohia hil da



Eguaztenian hil zan Juan Luis Mardaras, Eibar foball taldeko presidentia izandakua eta Jon Mardaras ...eta kitto! Euskara Elkarteko zuzendaritzako kidiaren aitta, 67 urterekin. Mardaras Eibar foball taldeko presidente karguan egon zan 1988. urtetik 2002. urtera bittartian eta taldia mailla profesionalian egonkortzia lortu eban, urte horretan 2.A maillan mantenduz. ...eta kitto! Euskara Elkarreak bat egitten dau famelixakuen eta lagunen saminiarekin.

Urtietan Arrate Filatelia Elkarteko presidentia izan zan Fidel Saez hil da

Oin dala bost urtera arte Arrate Filatelia Elkarteko presidentia izan zan Fidel Saez Aginaga ondarrutarra astelehenian hil zan, 85 urterekin. Selluak biltzeko zekan zaletasunak bultzatuta, Pagaegi kaleko lokal txiki batian hasi zan bere bildumak osatzen eta, denporiak, afiziño bera zeken beste batzuk gerturatu jakozen. Urtero San Andres jai-



xen inguruan egitten daben Exfibar erakusketia be bere ekimenez hasi zan antolatzen oin dala 50 urte, 1969xan. Hain zuzen be, 2013. urtian egin zan XLIV. Exfibar Seilu erakusketan Arrate Filatelia Elkartekuak omenaldixa egin zetsen, 40 urtian egindako biharra eskertu nahixan.

autuan

JON IÑARRITUREKIN SOLASALDIXA

Martitzenerako "Jon Iñarrigurekin berbetan" izenburuko solasaldixa antolatu dabe Eibarko EH Bildukuak. Nahi daben guztiendako zabalik egingo dan saiua Bilgunean izango da, 19:00etan hasitta.

1937-XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Azaruaren 15ian alkartuko dira 1937xan jaixotakuak, Unzaga Plaza hotelian alkarrekin bazkaltzeko, hamairugarrenez: 12:30xetan Untzagan alkartu, zapixak banatu eta taldiaren argazkixa etarako dabe. Peña Txinberan piskolabisa hartu eta txikiteuan ibilli eta gero, bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da. Juan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu, Kutxabankeko ES13 2095 5035009115389087 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak ziheztuta, edo, bestela, Txus Alzagarekin kontaktuan ipiñi.

Gabonetako OTARRA

Gabonetako OTARRA

Prezioa: 1€

Zbk:

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko

balioa duen Otarra

Zozketa 2019ko abenduaren 11an egingo da

Prezioa: 1€

Zbk:

Euskara Elkartea

Inbuitua 15 egunetan aurrerantzean ez beldu, erabiltzeko amagozatu zate.

— salmenta lekuak —

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ISASI OKINDEGIA
- BOLINTXO OKINDEGIA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- MUGIKA HARATEGIA
- OTEGI HARATEGIA

- MARIA OSPITXAL (Calbeton)
- KULTU TABERNA
- ZUBI-GAIN TABERNA
- GURIDI TABERNA
- UDAL EUSKALTEGIA
- AEK EUSKALTEGIA

Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Eskualdeko gaztairi eskindutako dastatzia eta azokia

Eibarko Udalak eta Debe-
men Debabarreneko Landa
Garapenerako Elkartek, Gi-
puzkoako Foru Aldundiaren
eta Artzai Gazta Elkartearen
laguntasunarekin antolatutako
Debabarreneko IV. Gaztaren
Astia gaur abiatuko da, 19:00-
etatik 20:30xetara Untzagako
jubilaueko egoitzan egingo dan
Debabarreneko gaztairi dastat-
ziarekin. Ekitaldixa eskual-
deko gaztagillien aurkezpena-
rekin hasiko da. Jarraixan,
gaztagilliak dastatzia zelan
egin azalduko dabe eta, ondo-
ren, galderak egitteko tartia
zabalduko da. Dastatuko diran
gaztairi honek izango dira:
Sosola (Enrike Gisasola, Ei-
bar), Mausitxa (Iñaki Ansola,



Artille mozketia egingo da domeka eguerdixan.

Elgoibar) eta Goienetxe (Be-
ñat Egaña, Mutriku) ardi-gaz-
tairi; Egotza (Nagore Martin,
Soraluze) ahuntz-gaztairi; eta
Axeleku (Ruben Markina, Ma-
llabia) behi-gaztairi. Laguntze-

ko, Sagarmiña txakoliña (Mu-
triku) eta Sosola basarriko (Ei-
bar) ogi ekologikua banatuko
dittue. Saiua euskeraz egingo
dabe eta parte-hartzia duan
izango da.

Eta domeka goizian, 10:00-
etatik 14:00xetara Gazta Azo-
kia egingo da, Untzagan, es-
kualdeko gaztagillien parte-har-
tzia arekin. Horrekin batera, era-
kustaldixak eta taillarrak egingo
dira: Gaztairi egitteko prozesua,
Mausitxa eta Egotzaren esku-
tik (11:30xetan eta 12:45etan);
Latxa ardiaren artillia eralda-
tzeko prozesua; Artille mozke-
tia, Ipar Arrinda ardi moztailien
eskutik (11:00etatik 14:00xeta-
ra); Artile lan erakusketia, Mi-
ren Torrealdaxa eibartarraren es-
kutik (10:00etatik aurrera); eta
puntu eta kakorraz-lanen topa-
ketia. Eta, egitaraua biribiltze-
ko, tren-lapikuan preparautako
ardi-haragi gisaua probatzen
emongo dabe.

1949xan jaixotako 40 lagun alkartu ziran zapatuan

Primerako eguna pasau eben aurreko zapatuan 1949xan jai-
xotakuak, aurten 70 urtiak betetzen dittuela-eta, horren aitzaki-
xarekin antolatu eben programiari esker. 40 bat lagun alkartu zi-
ran guztira eta, lpu-
ruako foball partidu-
a amaittu eta ja-
rraixan, Labadero-
kuan taldiaren ar-
gazkixa egin eta
bazkaltzera juan zi-
ran Unzaga Plaza
hotelera.



Burgosera exkursiñua egin dabe Pagatxakuak

Pagatxa emakumien alkartekuak Burgos aldera, Merindadie-
tara juan dira exkursiñuan. Argazkixan ikusten dan moduan, tal-
de haundixa alkartu zan eta, bestiak beste, Espinosa de los Mon-
teros, Medina de Pomar eta San Bernaberen ermita (Ojo Gua-
reña) ikustera juan ziran.



Untzagako jubilauak urte guztirako jardueren eskintza aberastu dabe

Martitzenian aurkeztu zittuen Untzagako jubilau etxekuak ohiko eskintzari gehitu detsazen jarduera barrixak. Esandakuaren arabera, "gero eta bazkide gaztiaguak dakaguz eta, horregaittik, eskintza be hórren premiñetara moldatzen juan bihar dala pentsatzen dogu". Gauzak holan, aurretik emoten zittuen Tai-chi eta Yoga klasieri Zunba klasiak gehitu detsez. Horrekin batera, illeapaindegi zerbitzuaz gain, martitzen goizetan podologia zerbitzua emongo dabe. Kultura orokorrian hobetu nahi dabenak be horretarako aukeria izango dabe aurrerantzian eta inglesa ikasteko martxan zeguan taldia, barriz, mailla bitan (oiñarrizkua eta aurre-ratua) banatu dabe. Aittatutakuekin batera, teknologixa arloko zantzak argitzeko zerbitzua emoten hasiko dira eta bazkide nagusixenendako (80 urtetik gorakuendako), barriz, bi taillar ipiñiko dittue martxan.

Urte guztirako eskintzatik kanpora, azarorako programaziño berezixa preparau dabe, 85 urtetik gorakuak omentzeko: Nagusilan alkaterekuak egitten dabenari buruzko hitzaldixa emongo dabe (urriaren 30ian, 19:15etan) eta Koldo Saez psikologo eta idazliak sexualidadiari buruzko hitzaldixa emongo dau azaruaren 6xan (19:15etan). Azaruaren 9xan, 12:00xetan, oin dala gitxi hil dan Ricardo Diez Varela "Ritxar" gogoratzeko sukaldaritza txapelketia egingo dabe, Untzagan. Parte hartzen dabenak berakatz-zopak bakillauarekin ("Zurrukutuna") prestatu biharko dittue eta hiru bikote onenendako sarixak egongo dira. Azaruaren 15ian, barriz, moda desfilia egingo dabe, Untzagako gitarra taldeko lau kideren emanaldixarekin lagunduta. Eta hurrengo egunian (aza-



ruaren 16xan) II. Poesia Derbia egingo da, Itzamnaren eskutik. Handik bi egunera (azaruaren 18xan) Imanol Larrabeiti foball jokalari-ohiari eta margolarixari eskindutako erakusketia zabalduko dabe (abenduarien 1era arte). Azaruaren 21erako, barriz, bingo berezixa antolatu dabe (16:00etan) eta azaruaren 23an hildako bazkidien aldeko mezia ospatuko dabe San Andres elizan, 12:00xetan. Bertan Untzagako abesbatzak kantauko dau. Ondoren, Arratera juango dira, Kantabria jatetxian bazkaldu eta 85 urtetik gorako eta 100 urteko bazkidieri omenaldixa egitteko. Oparixak banatu eta jarraixan, dantzaldixa egongo da. Eta hillebete osorako preparau daben programaziñua agurtzeko, abenduaren 1ian, 12:00xetako mezan, Untzagako abesbatzak kantaldixa eskinduko dau Karmengo Amaren elizan.



Eskualde osoko odol-emotailiak alkartu ziran Eibarren

Zapatuan egin eben Debabarreneko odol-emotailiak urteroko batzarra, Unzaga Plaza hotelian. Topaketan Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Elgeta, Antzuola, Oñati, Bergara eta Soraluze-ko odol-emotailiak alkartu ziran eta, bazkaltzen hasi baiño lehen, aurtengo omentuerei intsigniak eta diplomak banatu zetsazen. Omentutako eibartarrak hónetxek izan ziran: Ion Alcoba, Felisa Araujo, Miren Itziar Arrizabalaga, Iraitz Beitia, M^o Jose Canales, Sonia Gonzalez, M^o Nieves Lopez, Aitor Oregi, Patxi Salido, Edurne Uzkudun, Antonio Valderrey, Jon Zarrabe eta Amaia Zuloaga (25 donaziño); Juana Tardio (40 donaziño); Alberto Agirre, Iñaki Arranz Arriola, Joseba Andoni Arrillaga, Jesus M^o Zinkunegi eta Juan Pedro Martinez de Lagos (50 donaziño); Mertxe Arizaga (60 donaziño); eta Jose Ignacio Arranz Garcia eta Iñaki Arregi (100 donaziño).

Munduko pobreziaren kontrako ekintza

Urriaren 17xan mundu maillan gogoratzen da pobreziarekin amaitzeko eguna eta, hori goguan, Azittaingo La Salle ikastetxeko ikasliak ekintza berezi bat preparau eben, argazkixan ikusi leikian moduan.





Kanpotik etorri direnei buruz dauden estereotipo eta aurreritziak albo batera lagatzeko asmoz, Gipuzkoako SOS Arrazakeria eta Mugak elkarten eskutik aurten ere Bizilagunak ekimeneko bazkari multikulturalak egingo dira herri askotan, tartean Eibarren. Betiko asmoari jarraituko zaio oraingoan ere: hemen jaiotakoak eta atzerritik etorritakoak mahai baten inguruan jarri eta elkarrezagutzarako bideak zabaltzea. Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da eta bazkariak azaroaren 17an (domekan) egingo dira. Ekitaldian nahi duenak har dezake parte, familia moduan, taldean zein banaka izena emanda.

“Bizilagunak” bazkari multikulturalak azaroaren 17an izango dira

Aurreko urteetan egindakoaren bitartek, ekimenean parte hartzeko izena ematen dutenen etxeetan egingo dira bazkariak eta Eibarren, bazkaltzen hasi aurretik, izena ematera animatzen diren guztiak Untzagan elkartuko dira, euren arteko aurkezpena egin eta, jarraian, gonbidatuak jasotzeko izena eman dutenen etxeetara joateko. Bazka-

ria prestatzeko ardura familia gonbidatzaileak izango du eta, ahal izanez gero, bere jatorrizko herrialdean tipikoa edo tradizionala den bazkaria prestatzea litzateke aproposena.

Baina, menua albo batera lagata, horrelako bazkariak antolatzeko arrazoi nagusia elkarrezagutzarako bidea zabaltzea dela diote arduradunek, *“Hemengo pertsona askok ez du aukerarik edo ez daki zer egin atzerritik iritsitako lagunak ezagutzeko, eta alderantziz. Horregatik, Bizilagunak ekimena aukera paregabea da nork bere jakin-mina asetzeko eta bestelako jatorria, kultura, ohiturak edo pentsaerak dituzten hurkoak ezagutu eta ordu batzuk gustura igarotzeko”*.

2018an 2.542 lagunek osatutako 219 bazkari ospatu ziren Euskal Herri osoan eta azken urteotan eibartarrak ere animatu gara Bizilagunak egitasmoan parte hartzera. Gainera, bazkalosteetan esandakoengatik, orain arte parte hartu dutenak oso gustora daude esperientziarekin eta batek baino gehiagok errepikatu ere egin du.

Izena emateko immigracio@eibar.eus helbidera idatzi edo 943708440 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, mu-

gak.eu webgunearen bitartez ere badago horretarako aukera. Baita ongietorri@eta-kitto.eus helbidera idatzita edo 943-200918 telefono zenbakira deituta ere.

Aurten, jendeari ekimenaren berri emateko asmoz, Fernando Verak (Amenic Ikus-entzunezko produkzioak) zuzendutako promozio bideo bat egin dute: *“Bertan, Ane Gabarain, Jose Ramon Soroiz eta Isidoro Fernandez aktoreek jakinmin handiz bizi dute bizilagun berrien etorrera. ‘Non-dik etorri dira? Eta usain eta zapore horiek? Zer jaki prestatzen ari ote dira?’, gisa horretako galderak hitzetik hortzera egiten dituzte. Hassna Kadouri Joundi eta Ramy Mohamed Kamel dira etorri berriak, eta horiek herrimina eta bakardadea sentitzen dute”*. Jon eta haurrek, Cesare Magliani kameralariak eta Xabi Ortiz de Zarate soinu teknikariak osatu dute lana.

Bestalde, horrelako bazkari bereziek postre espeziala eskatzen dutela pentsatzen dute antolatzaileek. Horregatik azaroaren 30ean jaialdia egingo da Hernaniko Orona Auditoriumean eta bertan Bizilagunak ekimenean parte hartuko duten familia guztiek elkartzeko aukera izango dute. Eta festari amaiera emateko, musika eta jai giroa izango dira nagusi.

BIZILAGUNAK

17 AZAROA NOVIEMBRE 14:00

30 AZAROA DICIEMBRE 17:30

AUKERATU NOLA PARTE HARTU NAHI DUZUN
 ELIGE CÓMO QUIERES PARTICIPAR

Familia* antzerki bezala zure etxean
 Familia* antzerki ere bai

Gonbidatutako familia* bezala zure etxean
 Familia* antzerki ere bai

Dinamizazioa modura Bizilagunak behar duen

Disparitatearen aldeko ekimena

Izena eman eta erregistro gehiago lortzeko
 inscripción y más información

Eibarko Udala
 Anitztasun kulturala atala
 Ayuntamiento de Eibar
 Unidad de diversidad cultural
 943 708 440
immigracio@eibar.eus

—eta kitto!
 Euskara Elkarteak
 943 200 918
ongietorri@eta-kitto.eus

*Familia es lo que tú quieras que sea familia

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea

Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 50
AJT Zihurtasuna S.L.
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

Euskal Herriko pentsiodun talde batek ibilaldia egin du Bilbotik Madrilera, eta eibartar bi egon dira tartean: Begoña Vesga eta Riki Izarra. Jaka horia soinean, 400 kilometro inguru egin dituzte 23 etapatan eta bidean aurkitu duten jendearen babes osoa jaso dute. Rikik Aranda de Dueron (Burgos) egin zuen bat martxarekin eta, bizitakoaren ondoren, hurrengo ibilaldia prestatzen dihardu dagoeneko.

- Nola sortu zen Madrilera oinez joateko ideia?

Eibarko pentsiodunen artean orain dela hilabete batzuk komentatu genuen zerbait gehiago egin behar genuela protestekin. Nik pentsatzen nuen arazoaren bihotzera joatea komeni zela, hau da, Madrilera. Han egin genezake minik handiena. Oso ondo dago astelehenero herri bakoitzean protesta egitea, konfiantza ematen digulako eta protestak bizirik jarraitzen duela erakusten duelako, baina hedabideek nekez ematen dute horren berri. Bilboko protestak agertzen dira batzuetan, baina beste barik. Guri, Eibarren, gehiago kostatzen zaigu, baina badago borroka gehitzen joan den jendea. Nik ez du seme-alabarik, baina ingurukoengatik egiten dut borroka. Pentsioen kontuak ez dizu zuzenean eragin behar borroka egiteko. Kontestu horretan, Bilboko lagunek Madrilera martxa antolatu zuten eta jende multzo bat irten zen ibilaldia egitera.

- Nola koordinatu zarete Espainiako hegoaldekoekin?

Bilbotik irten ginenean 'Iparreko zutabea' osatu dugu eta Rotatik (Cadiz) irten zirenek 'Hegoaldeko zutabea'. Hegoaldekoak lehenago irten ziren, kilometro gehiago egin behar zituztelako. Guk baino zailtasun gehiago izan dituzte, errepide batzuetatik joaten utzi ez dietenez landa-bideetatik joan behar izan direlako. Guk ere bide alternatiboak hartu behar izan ditugu batzuetan. Antzina-ko errepide nazionala erabili dugu batipat.

- Nola prestatu zenuten ibilbidea?

Bilboko lagunek prestatu zuten. Madrilerako joateko asmoa zutela jakin genuenean Eibarko hiru lagunek bilera eduki genuen euren artean bat egin edo ez pentsatzeko. Begoña Vesga, bere aldetik, Bilboko prestatutako ibilaldira batu zen. Eibarko taldeko Iñaki Arzuaga eta biok bat egin nahi genuen, baina bideo batean ikusi genuen Bizkaiko pentsiodunen elkarte nagusia ibilalditik bereiz-



RIKI IZARRA (pentsioduna):

“Herri batzuetan heroi moduan tratatu gaituzte”

ten zela partikularren kontua zelako eta, ez genuenez inor amorrarazi nahi, ez irtetea erabaki genuen. Gero, ibilaldiak egun batzuk zeramanean eta gizartearen babes osoa zuela ikustean, bat egitea erabaki nuen. Ordurako, pentsiodunen plataforma guztiek babesa erakutsi zioten martxari.

- Zer sentitu duzu martxan ibili bitartean?

Guk ez dugu ezer egin, ibiltzea besterik, baina herri batzuetan heroi moduan tratatu gaituzte. Jasotako animoek hurrengo egunean gogo handiagoarekin ibiltzeko bultzatzen gintuzten. Izugarria izan da herri txikietan jaso dugun harrera. Berdin da herri bakoitzaren agintean zein alderdi politiko dagoen. Pentsiodunen aldeko parte-hartzea egon da. Guk ez dugu alderdi jakinen alda-

rrikapenik egin, pentsioen alde egiten dugu bakarrik, eta gure artean pentsamendu eta ideia politiko ezberdinetako jendea dago. Egia da zaila dela pentsiodunen mugimenduaren alde egiten duen jendearen artean eskuineko pertsonak egotea, baina nik ez diot inori galdetu eskuinekoa ala ezkerrekoa den. Aranda de Dueroko alkatea, adibidez, PP-koa da eta, harrera egiteaz gain, gure jantzi zuten pentsiodunen sistema publiko aldarrikatuz. “*Gobernatzen duenak gobernatzen duela, pentsioak defendatu behar dira*” esan dugu ibilaldian zehar.

- Nola antolatu duzue ibilaldiaren logistika? (Jatea, lo egitea...)

Hiru furgoneta etorri dira gurekin eta motxila handiak hor eraman ditugu. Jateko eta

“Pentsioen kontuak ez dizu zuzenean eragin behar borroka egiteko”

Lo egiteko, bestetik, jendearen laguntza eta elkartasun izugarria jaso dugu. Toki batzuetan Arzak jatetxean baino hobeto jan dugu. Lo egiteko, bestetik, batzuetan jendearen etxeetan egin dugu lo eta, bestela, lo-zakuak jartzen uzten ziguten tokian.

- **Zenbat lagunek egin duzue ibilbidea?**

Batzuk beranduago hasi ginen, beste batzuk etxera itzuli behar izan ziren eta jendea batu da bidean, batzuk Madrileraino eta beste batzuk etapa bat edo beste egiteko. Eta ez bakarrik pentsiodunak. Torrelagunako familia batekin adiskidetasun handia egin nuen eta euretako bat, Gemma, Madrileratorri zen gurekin. Demasa izan zen. Eguzkeren bere etxera joaten zen lo egitera eta hurrengo egunean gurekin bat egiten zuen etapa egiteko. Oporretan zegoen eta gurekin martxa egiten pasa zituen oporrak. Gero, 15 urteko alabak ere gurekin egin zuen bat.

- **Ibiltzeaz gain, bestelako ekintzarik egin duzue bidean?**

Herri gehienetan harrera egin digute. Adibidez, Honrubia de la Sierran (Segovia). Udan 100 biztanle izango ditu, gehienez. Herrira iristeko azken bidegurutzea hartu genuenean musika entzuten hasi ginen. Musika-banda geneukan zain! Poz-pozik jarri ginen. ‘Espainiako Laponia’ deitzen zaio gune horri, duen biztanleria dentsitate baxuagatik (4-6 biztanle kilometro karratuko).



Riki Torrelagunako Gemaren seme-alabekin.



Jaka horia soinean, 400 kilometro inguru egin zituzten 23 etapatan banatuta.

Herriak berreskuratzeko koordinadorak jarri dituzte martxan, mundu guztiak alde egin duelako. Normalean herriko ordezkariekin berba batzuk eskaintzen genien herritarrei, eta gure aldarrikapenak egiteaz gain, euren arazoengatik hainbat kontu aipatzen genituen eta eurekin egiten genuen bat.

- **Zer gertatu zen Madrileraino iritsi zinetenean?**

Madrilen sartu ginen momentuan, Somosierran, inork ez zigun harrera egin eta ez ziguten erraztasunik eman. Hango baso-suhiltzaileen babesak jaso genuen eta euren lan baldintzen alde egin genuen guk. Hortalezako (Madril) bikote zoragarri bat etorri zen baita ere eta amaieraraino lagundu ziguten.

- **Eta hiriburuan zer moduz?**

Hegoaldeko zutabearekin bat egin genuen Puerta del Sol plazan eta pasilloa egin genien, merezi zutelako. Guk baino lan, izerdi eta sakrifizio gehiago egin zuten. Hungarria izan zen. Plazara iritsi baino lehen lo-reak eta abar eman zizkigun jendeak, babes osoa erakutsiz. Jendea negarrez ikusi nuen, demasa izan zen. Diputatuen Kongresuaren aurrean zapatilak lagatzeko asmoa genuen, protestaren eta martxaren sinbolo bezala, baina ez ziguten utzi. Aurretik baimenak lortu genituen, baina azken momentuan alda-

ketak egon ziren. Beraz, geunden tokian pilatu genituen zapatilak.

- **Hurrengo egunean manifestazioa egin zenuten Madrilen. Amaiera biribila, ezta?**

Milaka lagun bildu ginen eta Eibar pentsiodunak ere etorri ziren. Hainbat politikari ere egon zen, baina PSOE edo PP-ko bat ere ez. Barrutik zaila izan da ekintzak izan duen eragina neurtzea, baina albisteak iritsi zaizkigu eta martxak oihartzuna izan duela esan digute.

- **Pentsiodunen mugimenduari indarra eman dio martxa honek?**

Hurrengo martxa presatzen dihardugu dagoeneko! Orain Gasteizera joan behar dugu. Eusko Jaurlaritzak dio pentsiodunen kontuan ez duela eskumenik, baina ez du eskumenik ez duelako nahi izan. Bestetik, azaroaren 16an manifestazioak egingo ditugu Euskal Herriko probintzietako hiriburuetan eta abenduaren 12an kontzentrazioak egingo ditugu Eusko Legebiltzarraren eta Nafarroako Parlamentuaren aurrean. Martxarekin lortutako babesak balio izan digu esateko pentsioen sistema publiko baten alde egiten dugula, Europako gidalerroak dioela gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan behar dela, 1.200 euroko gutxieneko soldataren alde egiten dugula, alargunek pentsioaren %100 jaso behar dutela eta ez %60, eta guzti hau konstituzioan blindatuta geratu behar dela.

“Jendearen laguntza eta elkartasun izugarria jaso dugu”



NAGUSILAN DEBABARRENAK

jasoko dau Gure Balioak Sarixa

Aurreko astian jakiñarazi eben aurtengo Gure Balioak Sarixa zeinik jasoko daben: errekonozimendua Nagusilan Debabarrenari emotia erabagi dau epaimahaixak, gure eskualdeko adiñeko pertsonetik erakusten daben *“solidaridade, parte-hartze eta konpromiso sozialarengaittik”*. Debabarrenian giza-baloriak sustatzen egindako lana aitortzeko asmuarekin 2010.ian sortu zan sarixa talde batek jasoko daben lehen aldixa izango da, oin arteko guztiak pertsonaren batek hartu dittu-eta. Azaruaren 14an, Coliseo antzokixan 19:00etan hasiko dan ekitaldixan jasoko dabe sarixa Nagusilane Eibar, Elgoibar, Soraluze, Ermua, Mutriku eta Deban dittuan taldietako ordezkariak.

Gure eskualdeko gizarte, enpresa eta hezkuntza arloko bederatzi lagunek osatutako epaimahaixak aurtengo sarituaren *“izaera altruista eta erantzukizun sozialeko printzipioa”* modu berezixan azpimarratu dittu. Izan be, Nagusilan Debabarrenak bakarrik daguazen nagusixeri laguntzeko parte-hartze aktibua sustatzen dau. Alkartia boluntariuak, batez be adiñekuak osatzen dabe eta, zeregin nagusixa, bakarrik daguazen zaharrei konpaina egittia da, *“batez be eguneko zentruetan eta zaharren egoitzetan”*. Nagusilan Debabarrenak ixa 25 urte daroiaz martxan eta, Eibar eta inguruko beste herrietan daguazen boluntariuerei esker, gure eskualdeko 300 zahar inguru, bakarrik egon biharrian, pasiatzera urtetzeko, kartetan edo binguan jokatzeko, irakortzeko... lagun bat dake aldamenian. Eta, zalantza barik, bihotzez eskertzen dabe boluntariuak egitten detsen konpaina.

Ixa 25 urte bestieri lagutzen

Gure eskualdian ez eze, Gipuzkoa osuan be izan diran aldaketa demografiko eta sozialak dirala eta, 65 urtetik gorakuen porzentajiak etenbarik doia gora egitten eta, hortaz, urtetik urtera gero eta zahar gehixago dagoz. Hain zuzen be, testuinguru horretan, moduren batian erantzuteko asmuarekin sortu zan Nagusilan 1995. urtian. Ideia Estatu Batuetako *“The Retired and Senior Voluntary Programme”* (RSVP) izeneko zaharren boluntariotza sozialaren esperientzian inspirauta dago eta, han martxan hasi eta urtebettera sortu zan Nagusilan Eibar, eskualdeko lehen eta segidan hasi ziran beste herrietako taldiak osatzen.

90 boluntarixo Debabarrenian

Eibarko talde horren sortzaillia Antonio Jimenez izan zan: *“Nagusixeri konpaina egitteko boluntariuekin alkarte bat sor-*



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO (2013-X-25)

Sei urte badira ere gure aldetik joan zarela...

**EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO
IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.**

Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba



Nagusilan alkartia 1995ian sortu zan Donostian, Estatu Batuetako esperientzia bateri jarraituta, eta Eibarko taldia segidan hasi zan martxan.

tu zala jakin neban eta lagun bateri komentau netsan, ia nerekin batera animauko ete zen... Donostiako Nagusilaneekin kontaktuan ipiñi nintzan, Egogain gerontologia zentruko zuzendarixarekin berba egin neban ondoren eta holan, beste barik hasi giñan Nagusilanen. Hasieran bi bikotiak baiña ez gengozen, baiña herrixan propaganda egitten hasi eta holan lortu genduan boluntarixo gehixago gurekin bat egittera animatzia. Sasoi batian 26 izatera aillegau giñan eta gaur egun 18 gagoz, tartian andria eta bixok". Eskualdeko Nagusilan guztiak alkartuz gero, 90 bat boluntarixo dira guztira. Gehixenak jubilauak, nagusixak dira, baiña diñuenez, "edozein izan leike boluntarixo, bardin detsa zaharra ala gaztia izan, nahikua da laguntzeko gogua eukitzia eta batenbateri konpaina egitteko astian pare bat ordu eskintzeko prest egotia. Eibarren 17 urteko bi neska dagoz, ikasliak dira eta astian egun batian andra batzurekin kartajokuan pasatzen dabe arratsaldia". Holako gazte gehixago gustora hartuko leukiezela esaten dabe, "geu be urtietan au-

rrera goiaz eta boluntarixo barrixak sar-tzen juatia komeni da".

Nagusilanek emoten daben laguntasunaren premiña be gero eta haundixagua izango dala errez aurrekusi leike: "Argi dago gero eta zahar gehixago egongo dala eta, hortaz, boluntarixuen premiña be gero eta haundixagua izango da. 100 urteko tartian, batezbesteko bizi-itxaropena 45 urtekoa izatetik 84 urtekoa izatera pasau da, pentsa!".

Zahartze aktiborako bidia

Gehixenetan zaharren egoitzetan eta holakuetan daguazengana juaten dira boluntarixuak. Esaten dabenez, "residentzietan be bakardade haundixa dago, nahiz eta han jende gehixago egon, askok ez dake famelixarik, bisitarik... holakueri konpaina egin bihar jakue eta horretan gabiz". Antonioren berbetan, "ni zazpi urtian egu-nero gizon batengana juaten ibilli nintzan, pasiatzera etarutzen neban... Berak ezin eban berbarik egin, baiña entzun bai, entzuten eban eta nik berba asko egitten netsan, kantau be... Zaintzailliak esaten zes-

tenez, ni aillegau aurretik bera zain egoten zan eta, ni ikustian, aurpegixan poza iger-tzen jakon. Beti esaten doten moduan, jasotzen doguna guk emondakua baiña gehixago da, hori da premixorik onena. Nik dakaten edadiakin, Nagusilan dana izan da neretako".

Izan be, Nagusilanen funziña bikoitza da: batetik, helburu nagusiña bestieri konpaina egittia da. Baiña, horrekin batera, boluntarixuen zahartze aktibua be sustatzen dau. Premixuaren barri pozarren hartu dabela diñue: "Debegesatik deittu zes-kuen premixua guri emotia erabagi ebela esateko eta benetan be sorpresa pozgarrixa izan da".

Nagusilan Debabarrena izango da Gure Balioak Saria jasoko daben hamargarren sariduna, 2010. urtian Debegesa garapen agentziaren ekimenez eratu zanetik. Eibarko Udalarekin batera, DanobatGroup enpresaren eta SD Eibar Fundaziñuaren laguntasuna izango dau Gure Balioak Sari-xaren banaketa ekitaldixak eta juan nahi daben guztiendako zabalik egongo dira Coliseoko atiak, ekitaldi irekixa izango da eta.

M^a LUISA GARATE ALTUNA "Marialui" 5. urteurrena (2014-XI-6)



"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan
dituzun ilusioa eta bizipoza"

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko dugu
azaroaren 6an, 19:00etan, San Andres parrokian.



Institutuko IKASLE TALDEA

“Eibarko gazteak mugiarazi nahi ditugu”

Gogotsu eta euren ahotsa entzunarazteko nahiarekin hasi dute ikasturtea Eibarko Institutuko Ikasle Taldeko kideek. Batxilergoko 1. eta 2 mailetako 15 ikasle inguru dira dagoeneko. Ikasleek jarrera aktiboa izan behar dutela uste dute, eta arlo desberdinetan (sozialean, politikoan, ingurugiroan...) jarduteko asmoa daukate. Joan den astean Kataluniako herriari elkartasuna adierazteko kontzentrazioan ikasle asko batzea lortu zuten ikastetxeko patioan.

- Nola eta zein asmorekin sortu da taldea?

Talde ez da berria, lehendik ere bazegoen, baina egia da joan den urtean jende gutxiago zegoela eta gainera denak Institutuko azken urtekoak zirela. Aurten batzuk taldearekin jarraitzea erabaki dugu, apurka-apurka batzen joan gara eta 15 ikasle inguru gaude dagoeneko, Batxilergoko 1. eta 2. mailakoak. Ikasleen borroka eta aldarrikapenak Eibarren sustatzea, hori da gure asmoa.

- Beraz, beharrezkoa ikusten duzue ikasleek jarrera aktiboa izatea?

Ikastetxean arazoak edo kexak baldin badaude taldean jarduteak pisu handiagoa dauka. Bestalde, arlo sozialean, politikoan, ingurugiroan... jarduteko asmoa daukagu, momentu bakoitzeko beharren arabera. Landu daitezkeen gaiak era askotakoak izan daitezke. Esate baterako, gela guztietan birziklatzeko ontziak jartzea eskatu dugu.

- Nola joan da ikasturte hasiera?

Ez dugu izan gauza handirik egiteko astirik. Lehenik eta behin egin duguna taldea sortu eta elkar ezagutzea izan da, eta ez da gutxi. Orain arte egin ditugun ekitaldi nagusiak, egia esan, protesta eta aldarrikapen ekintzak izan dira, horrela suertatu delako. Hispanitate egunaren aurkako pankarta egin genuen, baina jartzen ari ginela udaltzaingoaren eta ertzaintzaren “bisita” izan genuen. Sei udaltzain eta bi ertzain agertu



ziren zazpi ikasle identifikatzera. Neurritz kanpokoa iruditu zitzaigun. Zergatia azaldu barik, gu isiltzen eta beldurtzen saiatu ziren. Pankarta kendu ziguten, baina argazkia sare sozialean asko ikusi zen.

- Joan den ostiralean, bestalde, Institutuko patioan Kataluniaren aldeko kontzentrazioa egin zenuten...

Egun horretan guk ere zerbait esatea beharrezkoa zela ikusi genuen. Ahalegindu arren, ez genuen greba egiteko baimena lortu. Baina ezin ginen ezer egin gabe gelditu eta, horregatik, “paroia” egitea eta Kataluniarekin elkartasuna adierazten zuen

pankarta erakustea erabaki genuen. Zuzendaritzaren aldetik trabak jarri zizkiguten, arazo batzuk izan genituen, baina, hala ere, lortu genuen. Irakasle batzuk gurekin egon ziren eta baita DBHko 3. eta 4. mailakoak ere (eurak izango dira hurrengo urteetan Ikasle Taldearekin jarraitu ahal izango dutenak). Azkenean jende mordo biltzea lortu genuen eta polita izan zen.

- Aurrera begira zer daukazue buruan?

Guazak zehaztu barik ditugu, baina Konstituzio egunaren kontrako ekitaldiren bat egingo dugu eta aurrerago bergira, Martxoaren 8rako, zerbait berezia egiteko asmoa dugu.

- Sare sozialak eraginkorrak dira egiten dituzuen gauzak ezagutzera emateko?

Bai, Instagramen gaude (@eibarkoikasletaldea) eta dagoeneko jende askok ezagutzen gaitu Eibarren. Aurten jarraitzaile kopurua asko igo da. Gure moduko taldeek gizariekin gertatzen diren gauzen aurrean kontzientzia sortzeko balio dezaketela uste dugu, eta egiten duguna zabaltzeko erreminta egokiak dira sare sozialak. Eibarko gazteak mugiarazi nahi ditugu.



"Klimatoia, Eibarko Gazte Ekoekintzaileak 2019"

ekimena garatuko da asteburuan


GAZTE PROFESIONALEI ETA UNIBERTSITATEKO (GRADU ETA MASTERARRAK) ETA LANBIDE-HEZIKETAKO AZKEN URTEETAKO IKASLEEI ZUZENDUTAKO "Klimatoia, Eibarko Gazte Ekoekintzaileak 2019" ekimena hartuko du gure herriak asteburuan, gaur hasi eta domekara bitartean.

Topaketa honen helburua, "ideia berri-tzaile eta iraunkorrek bultzatzeko aukerak eskaintzea, enpresei irtenbideak emateko, klima-aldaketara egokitzeko bidean aurrera egin dezaten" da. Jon Iraola Ingurumen zinegotziaren berbetan, "lehen edizioaren emaitza onak ikusita, Klimatoia berriz gartu eta antolatzea animatu gara. Ingurune aparta da, eta bertan prestakuntza egokia duten gazteak biltzen ditugu, benetako proiektu eta negozio lerroak dituzten enpresa eta erakundeekin batera, guztiek ideia komun baten alde egiteko: ingurunerako lana eta aberastasuna. Hau da, gure ingurumena eta ditugun baliabide naturalak balioetsi eta errespetatuko dituzten enpresa-soluzioak garatzea da asmoa". Azaldu-

takoaren arabera, "asteburuko maratoi honetan, planetaren inguruan arduratuta dauden ikasle eta gazte profesionalek enpresa-irtenbide sortzaile, inklusibo eta jasangarriak diseinatzen dituzte, beti ere klima-aldaketari aurre egiteko asmoari jarraituta".

Climate-Kic Europako hirien sarea osatzen duten hiriek ekoekintzailetzatik abiatuta klima-aldaketari, efizientzia energetikoari eta energia berriztagarriei buruzko ikerketa-ekosistemak bultzatzen dituzte enpresa zein hezkuntza arloan eta Eibarrek ere sare horren parte izatearen aldeko apustua egin du. Izen-ematea atzo itxi zuten eta, asteburuari begira, enpresek eta erakundeek planteatutako erronkei aurre egiteko taldeak eratuko dituzte: "Tal-deetako kideek klima-aldaketaren eta ekintzailetzaren arloko adituekin batera lan egingo dute, ekintzailetzan oinarritutako irtenbide bideragarriak identifikatu eta diseinatuzko".

Bestalde, Klimatoia posible izateko, beharrezkoa da instituzioek, enpresek edo erakundeek produktu edo prozesu bat ho-



betzeko erronka, premia edo ideia berri-tzaile bat nabarmentzea, "zeinean aldaketa klimatikoa, aurreztea, eraginkortasun energetikoa, hondakinen tratamendua edo kutsadura faktore erabakigarriak izango diren".

Ekimenari esker Eibar eta Debabarrena Europako mapan jarri nahi dituztela diote arduradunek: "Klima aldaketaren kontra diharduten enpresa berritzaileen alde eta eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien alde egiten duten hirien artean kokatzea nahi ditugu. Izan ere, eskualdeak badu esparru horietan lan egiten duten industria eta hezkuntza-egitura garrantzitsu bat, ikerketa eta ekintzailetza-ekosistema bat aktibatuzko moduan gauden, eta Klimatoiak horretarako behar duen bultzada eman diezaioko".

Ekimena Udaleko Ingurumen eta Garapen Ekonomikoko arloan, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren eta Eibarko Clima Lab (klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikerketa eta ekintza sustatzeko lanean diharduen erakundea) laguntzari esker antolatu da.



laz lehen aldiz egindako edizioan sariak lortu zituzten gazteen argazki-taldea.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Armagin, 3-5 behek

- 🛍️ **merchandising**
- 🖨️ **serigrafia**
- 📦 **lanerako erropa**

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 687 879 667



unai artetxe

Denbora

Denbora gehiago eskatzen du hil zorian dagoen gaixoak. Senideekin, lagunekin edo bere buruarekin egoteko astia behar izaten du amaieratik gertu dagoenak. Azken hatsa eman aurretik atzera begiratu ohi dugu, iraganera, gibelean utzitako hori berriz ere parez pare izango ez dugunaren jakitun.

Bizitza hori omen da. Denbora. Eta gertuko norbait joaten zai-gunean baino ez ei gara horrekin jabetzen. Tristeia da gero!

37 urte bete ditut aurten. Ez zahar, ez gazte. Gauzak ondo bidean, bizitzaren erdia joan zait. Ez naiz orain arteko ezerekin damutzen. Egindako okerrak orain naizena izateko balio izan didate, eta seguru asko oraindik ere egingo ditudanak etorkizuneko pertsona hori izaten lagunduko dute.

Goizeko kafea hartzen nagoela egunkarian eskelak begira

Bizitza denbora da. Eta argi dut denbora luzez bizi nahi dudala. Astirik gabe geratuko banintz, seguru nago denbora gehiago eskatuko nukeela.

ari naizela jabetu naiz. Aldamenean dudan amamak horrelakoei begira egoteko oraindik gaztea naizela bota dit. Ez nau lasaitu. 42 urteko mutila. 34 urteko neska. Aiton-amona de-zente. Bizitzaz gozatzeko batere aukerarik ez duen umerik ere ikusi dut.

Bizitza denbora da. Eta nik argi dut oraindik ere denbora luzez bizi nahi dudala, nire ingurukoekin, maite dudaneekin, nire buruarekin, eta etorkizunean etorriko direnekin. Uneren batean astirik gabe geratuko banintz, gaur bertan, bihar, etzi edo tokatzen de-nean, seguru nago atzera begiratu eta nik neuk ere denbora gehiago eskatuko nukeela.

Bizitza denbora da, bai. Baina denbora asko edo gutxi, zeinek daki? Denbora gozatu! Bizi!



asier azkue

Tragediak

Aurreko batean teleberriak edozein amets gaiztotik ateratako albistea eman zuen: emakume batek, bere bikotekidearen laguntzarekin, Getxoko gizon bat engainatu zuen Tinder aplikazioaren bitartez behin gelditu ondoren gainean zeraman guztia lapurtzeko. Emaizta: tipoa bizirik lurperatu zuten, pala batekin kriston jipoia eman eta gero. Eta horrelako tragediak eta injustiziak egu-nero entzuten ditugu, orduoro. Altsasun hasi eta Kurdistanen amaitzen direnak.

Denbora pasa ahala, gero eta zailagoa egiten zait horrelako albisteak entzutea. Berdin gertatzen zait terrorismo matxistarekin edo Mediterraneoak irensten dituen errefuxiatuekin. Noiz bihurtu gaituzte horrelako tragediak erregistratzeko makina? Teleberria jarri eta lehenengo albistea: gizon batek bere emakumea hil du. Hurrengoa: Open Arms-ek ez dauka Italiako portuetara iristeko baimenik. Hurrengoa: Donostiako Zinemaldiak kriston harrera ona izan du.

Ez dago inongo bereizketarik injustizia edo edonolako albiste arrunt baten artean. Notizia guztiak filtro berarekin jasotzen ditugu, gertakari hutsak balira

Zein da arazoa? Izendatu ditudan tragediak eta injustiziak galdu egiten direla hainbeste albisteren artean. Ez dago inongo bereizketarik injustizia edo edonolako albiste arrunt baten artean. Notizia guztiak filtro berdinarekin jasotzen ditugu, gertakari hutsak bezala, alegia. Eta horrek indiferentzia sortzen du jendearen artean. Badakigu bizi dugun mundu honetan milaka injustizia gertatzen direla, baina ohitu egin gara eta ez dugu ezer egiten horren guztiaren kontra.

Indiferentziaren iturri dugun albisteen estandarizazioa arazo larria bihurtu da gaur egun; izan ere, masak kritikatzeko eta gizar-tea transformatzeko duen gaitasuna lausotu egiten da poliki-poliki. Honi guztiari buelta emateko argi daukadan gauza bakarra gauzak denon artean aldatu behar ditugula da. Behin ezagutzen du-dan tipo bati irakurri nion denok eman behar dugula zerbait gutxi bartzuk dena eman ez dezaten. Ez zitzaion arrazoirik falta.

EZTEIEN



Argazkia: Josu Torrealday

GEHIGARRIA

42. zenbakia 2019ko UDAZKENA

M A R S I



bidebarrieta,1
943201626
639403457



San Juan, 1
943 20 33 29

Izadi



ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA. 7 - BEHEA



josutorrealdays estudio
argazkilaritzafotografia

www.taomweddings.eus | www.josutorrealdays.com

c/ Fermín Calbetón nº4, 1º A3 20600 EIBAR (GIPUZKOA)
6 7 9 9 5 0 8 5 8 j o s u @ t a o m . e u s

“TIRO PITXOI JATETXEA”

– Eguneko menua
– Asteburuko menua
– Menu bereziak
– Karta...

Arraten

– Ezkontzak
– Ospakizunak...

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

fasprint
inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
Gonbidapen personalizatuak argazkiarekin

Serigrafia

Telf./Fax: 943 20 16 13 - Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR
fasprintei@yahoo.es - www.fasprinteibar.com



Argazkia: Josu Torrealday

Emaztegaiantzako soinekoak eta estiloa

Denborarekin aldatzen ez den zerbait badago, emaztegaiak bere ezkontzan duen papera da. Gonbidatu guztiak adi-adi egongo dira emaztegaiaren agerraldiaren aurretik. Hori dela eta, logikoa da egun horretan distiratsu egotea izatea. Kontuan hartu beharrekoak:

1. Trajeak: emaztegaiantzako prakak modan jartzen ari dira. Lela Rose, Danielle Frankel edo Reem Acra bezalako enpresek aukera horren aldeko apustua egin dute. Ezkontza-soineko klasikoetatik ihes egin nahi baduzu, ez baztertu datorren urterako tendentzia izango den aukera hau.

2. Loreak soinekoetan: ezkontzetako soinekoek loreen aldeko apustua egiten dute euren diseinuetan. Naturarekiko zure maitasuna egun horretan ere erakutsi dezakezu zure soinekoaren bidez.

3. Lumak: ezkontza-soinekoetan lumak azaldiko dira hurrengo denboraldian. Oscar de la Renta izan da bere ezkontzako diseinuetarako mugimenduz beteriko osagarri hau aukeratu duena.

4. Gona baxuak: aurrealdean motzak eta luzeak atzealdean. Emakume modernoarentzako moda hori ezkontza-soinekoetara ere iritsi da. Eraldatu zure estiloa apustu fresko batekin, baina zure ezkontza-soineko amaieran isats erromantiko baten ukitu tradizionalarekin.

5. Bordatuak eta parpailak edo enkajeak: zenbat eta ausartago, orduan eta hobeto. Datorren urtean bordatuak eta era guztietako parpailak jantziko dira. Oraingoan ez da nahikoa sotila izatea, haien presentziak begi guztiak harrapatuko dituelako.

Bauskain

FINCA

IRVŌIA
GRUPO
grupoiruña.net



"Esklusibotasuna, pribatutasuna
eta gastronomia bikaina
eskaintzen dizu
Finca Bauskainek
antolatzen zabiltzan bataio,
jaunartze edo ezkontza
ospatzeko. Etorri eta ezagutu"



Markina Xemein

Telf. 94 424 9059

bauskain@grupoiruna.net

www.fincabauskain.com



Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es






BERRIA!!!
BEGI
ingurunerako
tratamendua



LIFTING
tratamendua

BETILE
LUZAPENAK



LIFTING

LASER DEPILAZIOA
5 saioetarako BONOA 99€
Hanka osoak + izartearak
+ besapeak 95€

Hanka osoak 60€	Bizkarra+Lunbarra 50€
Izartearak+Besapeak 50€	Ezpaina/Begitarrea 10€
Bularra+Abdomena 50€	Zona/saioko 30€

Gonbidapenak, dekorazioa eta koktelak

Gonbidapen tradizionalaz gain, barrualde estanpatuak eta lore lehorrak, lazoak eta laka pertsonalizatuak dituzten gutunazalak ere tendentzia dira.

Ezkongaiek, gehienetan, euren menua pertsonalizatzea nahi izaten dute. Gero eta gehiago dira koktela eskaintzen duten ezkontzak, janari guztia gonbidatuen-gana hurbilduz; janari-postuak, berriz, gero eta gutxiago. Dena dela, egia esan, plater tradizionalen aldeko apustua egiten dute gehienek eta agian, mokaduetan, ausartagoak dira. Mahaien dekorazioari dagokionez, aniztasun handia dago: mahai-zapirik gabeko mahaiak, koloretako edalontziak, mahai inperialak...



El jardín de tulipa
FLOWERS&DECO

El Corte Ingles-ean

943 20 88 47
645 67 85 76



Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak




YOKASTA
manikura-aretoa

Ibarkurutze, 7
Tel. 603 344 258

MANIKURA
5 €tik hasita

PEDIKURA
10 €tik hasita



zurre azazkalak



zurre espresibidea



ROCA


TEL. 943 20 80 06 CALBETON, 16
-EIBAR-

Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!



Sorpresak eta detaileak

Ezkontza su artifizialekin irudikatzen duzu? 80 segundoko suzko erroberak 199 euroren truke eskura daitezke. Jakina, baldintzak betetzen dituen espazio batean. Bengalak ere ezkontzetako elementu arrunt bihurtu dira.



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkongai askok gonbidatuen mahaietan uzten dituzte ezkongaiak sartzen direnean pizteko; beste batzuek, berriz, nahiago izaten dute lehen dantza egiten duten bitartean distira egitea.

Gonbidatuei egiten dizkieten opariei dagokienez, normalean pertsona bakoitzeko 3 euro inguru gastatzen dituzte. Helburu nagusia opari praktikoa izatea da, erabilgarria. Gehien saldutakoen artean eguzkitako betaurrekoak daude, ispiluak edo irekitzaileak, oihalezko poltsak, imanak...

Barra irekia baino gehiago

Jada ez da nahikoa pare bat foko dituen DJa kontratatzea. Orain ezkontzetako "barra libre" edo barra irekia argi eta soinu ikuskizun bihurtu da, eta aukera asko daude, esaterako, zuzenean emititzen duten pantailak jartzea, festa streaming bidez bizitzea, piroteknia hotza, LED lurzoru zuriak, argiztapan bereziak... "*Orain show-etako eszenaratzea eta muntaia nahi dute, diskoteka mugikor bat izango balitz bezala*", diote adituek.

Belaustegi Baserria

JATETXEA 943 743 102
San Miguel gaina ELGOIBAR



Zure ezkontza
www.belaustegi.com
zure neurrira!

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com



EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

Arrate Gaina, 4 • 279 Postakutxa • 20600 EIBAR • Tel. 943 121 262



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JATETXEA

943 207047
Fermin Calbeton, 1

peluqueriacaetano@gmail.com
www.castanopeluqueros.es

Bidebarrieta, 28



Tel. 943 20 79 73



**Ezkontzetarako
tartak eta opariak
prestatzen ditugu**



Argazkia: Josu Torrealday

“Cachimbak”

Cachimbak terrazetan eta pubetan erabiltzeko joera ezkontzetara pasatu da. Normalean barra irekian jartzen dituzte eta arduradunak prozesu guztiaz arduratzen dira.

Bikoteek aukeratzen dute zein motako tabakoa jarri nahi duten eta, gainera, zenbat *cachimba* jarri gonbidatu kopuruaren arabera. Zazpi *cachimba* hiru orduz jartze-atik, adibidez, 250 euro ordaindu behar da.

Eztei-bidaia

Bikote bakoitza mundu bat da. Eztei-bidaia bikoteen aurrekontuen, aurretik egindako bidaien eta abarren araberakoak dira. Ezkontzarekin gertatzen den bezala, bidaietan ere modak eta tendentziak daude. Japonia-Maldivak, Asiako hego-ekialdea, New York (klasiko bat) eta mendebaldeko kosta zerrendako lehen postuetan daude azken urteetan, eta bikote askok safariak ere aukeratzen dituzte Namibian, Kenyan, Tanzanian, Botswanan...

Normalean, eztei-bidaia aste bikoak izaten dira, eta bakar batzuk hiru asterako ere hartzen dituzte. Ohikoa da ezkontideek eztei-bidaian zerbait berezia nahi izatea, luxuzko helmuga edo hotel bat esaterako.

Nola lortu zuen neurrira egindako ezkontza-erreportajea?

Argazkigintzako milioika profesional aritzen dira bizitzako une politak erretratatzeko, bikoteenak, gertaera garantzitsuenak, baina batzuk besteak baino gehiago bereizten dira eskaintzen duten zerbitzuarengatik. Ondo aukeratu behar da eta, egia esan, ez da lan erraza. Garantzitsuena ez da pertsona ospetsu bati erreportajeren



Argazkia: Josu Torrealday




Argazkia: Josu Torrealday

bat egin izana, edo bere inguruan garestiena edo ospe handiena duena izatea. Profesional on bat aukeratzeko orduan, hainbat irizpide hartu behar dituzue kontuan. Funtsezkoa da oso oinarritzkoak diren bi xehetasun aintzat hartzea: eskaintzen dituen zerbitzuak zuek ezkontza-egunerako nahi dituzuenak izatea, eta zuek ezagututa, eroso sentiaraztea, segurtasuna eta konfiantza emango dizuen *feeling* on bat ematea... Kontuan hartu beharreko funtsezko bi gauza dira, gero dena ondo ateratzea nahi baduzue.


J O S E B A J A T E X E A

KALITATEZKO PRODUKTUETAN OINARRITUTAKO EUSKAL SUKALDARITZA

facebook/josebajatetxea
josebajatetxea@hotmail.com



AZKOITIA



AMAIA ARIZMENDIARRIETA: Handik goitik.

Zazpi ordutik gorako gimnasia jaialdia San Andres Torneoan

Estatu osotik etorritako 400 gimnasta baino gehiagoren ariketekin gozatu zuten aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian bildutakoek San Andres Torneoaren XXI. edizioan. Azken urteotako parte-hartze handiena lortu zuen Ipurua Klubeko entrenatzaile, gimnasta eta gurasoen lanak, eta horren adibidea da Espainiako azken txapelketan dominak lortutako talde gehienak Eibarren izan zirela, federatuen mailako euskal klub guztiakin batera; Kantabria, Asturias, Gaztela-Leon, Madril, Katalunia eta Balearre Uharteek ere gimnasia munduko ordezkari onenak aurkeztu zituzten. Alaitz Aranbarri, Nahia Arguiz, Jennifer Hernandez, Maddi Teran eta Arrate Barojak osatutako boskotea nagusitu zen senior mailan, Vallecasko eta Zaragozako boskoteen aurrean. Lehenengo mailan Vallecasko izan zen onena, Tolosa eta Zaragozaren aurretik. Ipuruako junior mailako taldeak, bestalde, brontzea irabazi zuen Tolosa eta Donostiren atzetik geratuta. Goizeko saioan oinarri mailako taldeek hartu zuten parte, eta hor Ipuruako jubenilak laugarren sailkatu zi-



Senior mailako probaren podiuma, gorenean Ipuruako gimnastekin.

ren eta infantil mailakoak bosgarren. Azken aldian Ipurua taldearekin lehiatu duen Sakoneta Klubeko Eneko Lambea nagusitu zen mutilen artean.

Hurrengo egunean, domekan, Ipuruako gimnastek Iruñean lehiatu zuten. Nafarroa-

ko Erresumaren torneo horretan Ainhoa Bizkarrak urrezkoa irabazi zuen oinarri kadeteen, eta senior mailako taldea eta oinarri jubenilekoa bigarren izan ziren. Etzi Gernikako Xixili Torneoan izango dute hurrengo erronka Ipuruako gimnastek.

Garaipen ezin borrokatuagoa Avia Eibar Saskibaloiairentzat

Will, 27 punturekin, eta Anderson (15ekin) izan ziren saskiratzaile onenak Avia Eibar Saskibaloiairen lehen taldeak Astigarragan lortutako garaipenean. Neurketa oso borrokatua izan zen (23-25, 37-35 atsedendian, 50-54 eta azkeneko 65-68 izan ziren lau laurdenetako emaitzak) eta Mikel Lekunberrik eta Aitor Arakistainek entrenatutakoek partidu zailenetan ere erantzuteko moduan daudela erakutsi zuten. Mundarro B-ren aurrean izandako norgehiagokaren ondoren eibartarrek azaroaren 9an izango dute hurrengo partidua. Harrobiari begira, junior mailako mutilek 64-55 galdu zuten Zast Zarautzen kantxan, eta maila bereko nesken taldeak amore eman zuen Añorga C-ren etxean jokaturako partiduan. Kadete mailako mutilen taldea ondo nagusitu zitzaion Bergara-Soraluzeri etxetik kanpo eta infantil mailako talde biak gaitzaile izan ziren: haundiak BKL Loinatzekin galdu zuen Beasainen eta errendimendukoak ia ez zuten aukerarik izan Eibarren Mondragon Unibertsitatearekin jokaturako partiduan.



Unai Otxandiano



Kalamuako judokek dominak irabazten hasi dute denboraldia

Aurreko zapatuan kirol eskolaren barruko saioa izan zuten Eibarren eta arratsaldean Gipuzkoako txapela izan zuten jokoan Hernaniko kiroldegian. Senior mailan Eider Alberdik, Ane Fuldainen eta Asier Eslavak brontzezko domina bana eskuratu zuten; eta metal berekoaz jabetu ziren Eneko Korta eta Alex Jimenez alebinetan. Hurrengo egunean, domekan, Madrilgo Villaviciosa de Odonen jokaturako Ne Waza nazional mailako Open edo Irekian Eider Alberdik zilarra irabazi zuen finalean galdu ondoren eta Asier Eslavak bezperako brontzea errepikatu zuen.

Urbateko waterpolistak indartsu Orbeako igerilekuan

Senior mailako talde biak garaile izan ziren etxean jokaturako partidetan, aurkari indartsuen aurrean seriotasuna erakutsita. Gizonezkoen taldeak gustora jardun zuen denboraldiko estreinaldian eta Donostiako Fortunari 16-5 irabazi zion. Kanpotarrek fitxaturako bi argentinarrekin etorri ziren, baina Cerchiren mutilek partidu bikaina osatu zuten. Emakumezkoen taldeak ligako bigarren partidua jokatu zuen Santoñaren aurka eta, joko trinkoa erakutsiz, 10-6 nagusitu zitzaizen kantabriarrei. Partiduaren aurretik Miren Urizar Europako txapelkunak ondo merezitako omenaldia jaso zuen. Azkenik, hiru eibartar deitu dituzte haurren euskal selekzioetik: Alazne Ziarsolo, Nahia Gomez eta Itsaso Molina.



Hasi da Euskal Herriko 30. hiru-txirlo txapelketa



Hiru-txirlo bola jokalariek ere bat egin zuten Kataluniarekin.

Aurreko zapatuan hasi zen Lasturreko bolatokian Euskal Herriko txapelketaren 30. edizioa 69 bolariren parte-hartzearekin. Bertan argi geratu zen posible dela denontzako bolatokia prestatzea, "indarraz baliatzen direnek eta teknika lehenesten dutenek, bietakoek izan zutelako euren aukera". Elgoibarko San Miguel bolatokiko Xabier Loiola (zazpi txirlo) nagusitu zen Itziariko auzoan, Iruzubietako Antonio Ibarluzearen aurretik (sei txirlo); ondoren sailkatu ziren Javier Osoro elgoibartarra eta Sergio Rodriguez Asola Berriko ordezkaria, bostekin. Bittor Ugarteburu eibartarrak seigarren amaitu zuen, lau txirlorik. Txapelketak lau jardunaldi izango ditu guztira: bihar Ziortza-Bolibarko Iruzubietan jokatu da bigarren jardunaldia eta azaroaren 9an (Elgoibarko San Pedron) eta 16an (Markina-Xemeingo Uhagon) izango dira beste biak.

Podiumetik 10 segundora Leongo txakurkrosean

Gure herriko txakurkros bikotea hamar onenen artean sailkatu zen aurreko asteburuan Leongo Valdefresno de Sobarriban jokaturako proban. III. Sobarribako Mushing-a asko murriztu behar izan zuten, egoera klimatikoak horrela behartuta, eta azkenean ia guztiz lauak izan ziren hiru kilometro eta erdi osatu zuten. Andoni Mayo eta Dexter txakurra laugarren postuan helmugaratu ziren, podiumetik 10 segundora; eta Sonia Dominguezek, Zeus txakurarekin, 10. postuan amaitu zuen.



Eibarko ordezkariak Sestaoko Benediktakoekin.

Deporreko squash taldea Euskadiko azpitxapelkun

Aurreko asteburuan Sestaoko Benediktako kiroldegian jokaturako taldekako Euskadiko txapela etxean geratu zen eta sestaoarrak nagusi izan ziren gizonezkoen zein emakumezkoen mailan. Gizonezkoen mailan bizkaitarrek Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak irabazi zieten finalean. Ferreiro, Salgado eta Cabanillasek maila eman zuten aurrez irabazitako txapela berresteko, baina oraingoan amore eman behar izan zuten. Aste batzuk lehenago Alberto Ferreiro Euskadiko selekzioarekin izan zen Fuengirolan jokaturako Espainiako txapelketan; euskal selekzioa bosgarren sailkatu zen bertan.

Arrateko gainak bi etapa jasoko ditu 2020an: Euskal Herriko eta Espainiako Itzulietakoak

Txirrindulariek Arrate gainean urtero etapa amaitzea ohikoa bihurtu bada, datorren urtean bitan izango da helmuga. Espainiako Itzuliaren laugarren etapa Irunen hasiko da eta Arraten amaituko: abuztuaren 18an jokatuko da, Herbeeretan lehiatuko dituzten hasierako hiru etapen ondoren. Etapa horretako xehetasunak oraindik kaleratu ez badira ere, aurtengo Itzulian arrakasta handia izan zuen Karakaterako igoerak bere tokia izan dezake Sorluzeko lurretan. Orain dela zazpi urte, 2012ko edizioan, izan zen Arrate Espainiako Itzuliko etapa baten amaiera, orduan ere oso goiz, hirugarren etapan. Valverde nagusitu zitzaion Purito Rodriguezen metroetan, Froome eta Contador lagun zitzutela helmugan. Euskal Herriko Itzuliak, bestalde, azken urteotako bideari jarraituko dio eta probaren gure herriko antolatzaileek Eibar bihurtuko dute protagonista berri ere. Oraingoan, dena dela, Eibarrek ez du amaiera jasoko, hasiera baizik. Aste Santuan bete-



Enric Mas-en garaipena Arrateko helmugan.

betean, apirilaren 6an hasi eta 11n amaituko den lasterketaren lehenengo etapa Arraten amaituko da. Itzuliak, bestalde, Bilbon izango du amaiera, eta baliteke San Mamesen izatea helmuga.

Errugbian emakumezkoak garaile eta gizonezkoen talde biek kale



Senior mailako gizonezkoen bigarren taldeak gogor borrokatu zuen.

Denboraldiko lehen zatia Euskal Ligan jokatzen diharduen emakumezkoen taldeak hirugarren garaipena eskuratu zuen aurreko domekan Unben Gaztediren aurka jokatutako norgehiagokan (42-12); bihar La Rioja izango du aurkari 16:00etatik aurrera. Gizonezkoen lehen taldeak 26-39 galdu zuen Unben Campus Ourenseren aurka eta jokoan zeuden lau puntuak Galiziarra joan ziren. Gaston Ibarbururen mutilak aurretik joan ziren aldageletara atsedendian (21-17), baina bi-

garren zatian jokalaria bat gehiagorekin jokatu arren, azkenean galiziarrek markagailua iraultzea lortu zuten; asteburu honetan Avilesen izango dute hurrengo hitzordua. Senior mailako gizonezkoen bigarren taldeak denboraldiko bigarren partidua jokatu zuen Unben, Uribealdearen bigarren taldearen aurka. Neurketa borrokatua izan zen eta, atsedendira 7-13 atzetik joan ondoren, amaieran 12-20 galdu zuen. Unamunoren jokalariek bihar 16:00etan jokatuko dute Bilbon.

Hiru pilota partidu jokatuko dira gaur Astelenan Deporreko ordezkariekin

Partidu nagusia federatuen mailako Gipuzkoako eskuz banakako txapelketakoa izango da. Hor Eibarko Klub Deportiboko Ibon Ibarrek eta Aretxabaretako ordezkariak neurtuko dituzte indarrak, infantil mailako partiduan, 19:30etik aurrera. Jaialdia, dena dela, 18:00etan hasiko da, Deporreko pilotarien arteko bi neurketekin: benjamin mailakoekin hasiko da eta hor Liher Gil eta Ekain Olaetxeak Peru Baskaran eta Aratz Amillategiri egingo diete aurre; eta alebin mailakoan Ekhi Azpilikueta eta Rafael Silvak osatutako bikoteak Manex Gisasolak eta Patxi Basarasek osatutakoari egingo dio aurre.



Etzi goizean Udazkentraila jokatuko da

Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, urtaro honi dagokion traila jokatuko da domekan. 18 kilometro eta erdi izango dituen proba goizeko 08:30ean abiatuko da Deporren aurretik eta edozeinek hartu dezake parte, aurretik kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidera idatzita. Deporren hasi eta amaitu, Txomo, San Salvador, Azurtza, Araotz, Karabieta, Ibur-erreak eta Elgeta-bidea lotuko dituzte.

Bergaran bizi den Jose Agustin Gurruchaga eibartarrak lortu du XXXII. Indalecio Ojanguren argazki lehiaketaren sari nagusia. 'Urko' izeneko bilduma aurkeztu zuen Gurruchagak eta sari hau irabazi duten maila handiko argazkilarien zerrendaren alboan idatzi du bere izena. Poz-pozik jaso du saria eta argazki sarituekin ireki duen bideari jarraipena eman nahi dio.

- Nola sentitzen zara Indalecio Ojanguren saria jaso ondoren?

Oso pozik. Indalecio Ojanguren lehiaketa erreferentea da niretzat eta oso pozgarria da irabazi ahal izatea. Estatu mailako lehiaketa izanik, maila handiko argazkilariak aurkezten dira lehiaketara. Iraganean sari txikiren bat irabazi izan dut Indalecio Ojanguren sarietan (euskaldun onenaren saria), baina sari nagusia jasotzea ez da erraza.

- Eibartarra izanik, are bereziagoa da sari nagusia jasotzea?

Euskal Herri mailako hainbat lehiaketatan hartzen dut parte, baina Indalecio Ojanguren sariak zerbait berezia du.

- 'Urko' izenburua jarri diozu saritua izan den argazki-bildumari. Zer islatu nahi izan duzu?


Orain dela hiru edo lau hilabete hasi nintzen ilobarekin argazkiak prestatzen. Feminismoaren eta emakumeen inguruko zerbait egiteko gogoia nuen, emakumeen borroka islatu, eta Bergaran dudako estudioan argazki batzuk egin genituen. "Esan nahi duguna ulertuko da?", pentsatu genuen. Lagun batzuei erakutsi nizkien argazkiak eta islatu nahi nuena ikusi zuten. Indalecio Ojanguren sarietan aurkeztea pentsatu nuen, hor aurrera egiten bazuen, ulertu daitekeen zerbait dela argi geratuko zelako. Hiru argazkiko bilduma prestatu eta, hara, lehenengo saria lortu dut. Saria pizgarria izan da gai honen inguruan lanean jarraitzeko.

- Beraz, argazkian agertzen direnak zure ilobak dira?

Bai. Nire argazkietako modeloak familiakoak izan ohi dira.

- Nolako tratamendua eman diezu argazkiei?

Zuri-beltzeko argazkiak dira, indartsuak, eta Photoshop programa erabili dut editatzeko. Gero, paperean aurkeztu behar direnez, Bilboko laborategi batean inprimatu ditut. Argazkiak ordenagailuan ikusten ditudan bezala inprimatzen dituzte laborate-



JOSE AGUSTIN GURRUCHAGA
 (argazkilaria):

“Emakumeen borroka islatu nahi izan nuen argazkietan”

gi horretan, konfiantzazkoak dira. Maiztetik eduki ditut argazkiak etxean, Indalecio Ojanguren sarietarako apropos gorde-ta. Hiru argazkiko bilduma izanik zerbait kontatzeko aukera dago, normalean argazki bakarra aurkezten dugulako lehiaketetara eta argazki bakarrarekin oso zaila da zerbait kontatzea.

- Gai sozialak erretratatzeko gustatzen zaizu?

30 urte baino gehiago daramatzat argazkiak egiten. Argazkiak egitea eta mendian ibiltzea dira nire bizio handienak. Ilobei hau edo bestea egin nahi dudala esa-

ten diet eta asko inplikatzeko dira. Demaseko zortea dut eurekin, gozamina da. Konplizitate handia dago argazkiak egiteko orduan eta horrek ez du preziorik. Gauza ezberdina da etxekoekin egitea edo modelo bati ordaintzea argazkiak egiteko.

- Konplizitate hori igartzen da argazkietan orduan?

Seguru nago baietz. Nire emaztea Albacetekoa da eta hara joaten garenean lagunaren alabei argazkiak egiten dizkiet, eta asko igartzen da ezagunak eta lagunak direla. Ez dakit zelan, baina konplizitate hori argazkietan agertzen da.



- Argazki lehiaketetan parte hartzea gustatzen zaizu?

Bai, urte guztian zehar ibiltzen naiz argazki lehiaketetan parte hartzen. Gaur egun ehun mila lehiaketa daude, beraz, badago aukera.

- Motibatu egiten zaituzte?

Norberak egiten dituen argazkiak jendeari gustatzen zaizkion ala ez jakiteko modu bat dira lehiaketak. Bestetik, Beasain eta Bergarako argazki-taldeetan hartzen dut parte eta bileretan beti ikasten da zerbait. Argazkilari bakoitzak ikuspuntu eta gustu ezberdinak ditu.

- Zelako argazkiak dituzu gogoko?

Klasikoa naiz. Indalecio Ojanguren sari-rako aurkeztu nituen argazkiak, ordea, ez dira klasikoak. Nire ohiko ibilbidea apurtu eta argazkilaritza klasikotik irten naiz pixka bat lehenengo aldiz. Bestela, mendian ibiltzeko zaletasuna dut, eta mendiko eta naturako argazkiak egin izan ditut. Orain mendian ez dut argazki-makina aldean eramaten, ez bada zerbait berezia ikusi dudala.

- Nola hasi zinen argazkilaritzaren munduan?

Ez dakit; beti izan dut afizioa eta interesa. Bergarara bizitzera etorri nintzenean argazkilaritza-taldean eman nuen izena eta ebo-luzionatzen joan naiz.

“Argazkiak egitea eta mendian ibiltzea dira nire bizio handienak”

- Argazkilaritza ikasketak egin zenituen?

Ikastaro batzuk jaso nituen orain dela 30 urte inguru, baina lagunekin berbetan, internet bitartez, hitzaldietan... ikasi dut. Lagunekin egiten ditudan afarrietan jasotzen ditut ikastaro onenak. Gutako bakoitzak egindako argazkiak erakusten diogu elkarri, gauzak zelan egiten ditugun azaltzen



“Argazkilaritza klasikotik irten naiz pixka bat lehenengo aldiz”

dugu eta asko ikasten da horrela. Nik ez dut sekreturik eta berba asko egiten dut argazkilaritza munduan dagoen jendearekin. Gainera, adiskidetasuna sortzen da gure artean.

- Baduzu argazki kuttunik?

Atzo bertan ilobaren erretrato bat egin nuen, ederra. Bestetik, orain dela urte bi argazki bat atera nion ilobari, buruan zapia duela, eta asko gustatzen zait. Begietan duen espresioa ikusgarria da. Mendian egin ditudan argazki batzuk ere gustatzen zaizkit, baina oso estilo ezberdinekoak dira. Ez dakit zein argazki den hobea, ezberdinak dira. Argazki lehiaketetan ere uste dut ez dagoela beste bat baino ederragoa den argazkirik. Epaitzen den momentuan epaileri gehiago gustatu zaien argazki bat egon daiteke, baina horregatik ez da hobea izango. Gainera, oso subjektiboa da.

- Eta baduzu argazkilaritza-proiekturik etorkizunera begira?

Indalecio Ojanguren sarietan aurkeztutako proiektua gehiago lantzea nahiko nuke, lana osatzeko.

- Argazki-erakusketak egiteko ohitura duzu?

Ez. Bergaran egin nuen bat, baina demaseko lana da. 30 argazki nituen, mendikoak guztiak, eta lagunei oparitu nizkien.

Etxepare Euskal Institutuak eta Edinburgoko Unibertsitateak antolatuta, nazioarteko kongresu bat egon zen joan den astean Edinburgoko Unibertsitatean. Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxituen egoera soziolinguistikoa eta egoera horren aurrean hedabideek duten funtzioa eta horien garapena aztertu zen bertan. Euskal Herritik joandako aditu eta profesionalen artean, Ainara Lavado ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizazio arduraduna daukagu, eta berak kontatu dizkigu handik jaso dituen ondorio eta ideia nagusiak.



AINARA LAVADO (...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizazio arduraduna)

“Hedabide jeneralistentzat erronkak handiak badira, are gehiago txikientzat”

- Zein izan da Kongresuaren ardatza?

Kongresu edo topaketa hau hizkuntza gutxiagotuen ikuspegitik sortu da, eta batez ere Europako hizkuntza gutxiagotuen kasuak aztertu dira, nahiz eta Afrikako kasu batzuk ere azaldu diren. Egoera soziolinguistiko desberdinetan hedabideen rola zein izan den ikusi da. Gutxiagotutako hizkuntzak izateak ez du esan nahi herrialde horietan hizkuntza horiek egoera berdinean daudenik. Leku batzuetan ofiziala da, baina beste batzuetan ez; zenbait lekutan (Afrikako kasuan, esaterako) jendea ez dago alfabetatua eta, horregatik, hizkuntza horretan irriatiak sortzen dituzte. Beste batzue-

tan, txikiak diren arren (frisiarraren kasua, adibidez), gehiengoaren kaleko hizkuntza da, baina ez dakite hizkuntza horretan idazten edo irakurtzen. Bosnia eta Serbiaren kasuan ez da bakarrik hizkuntza aldatzen, idazkera ere aldatzen da (batzuk latinoak eta beste batzuk zirilikoa daukate). Oso egoera soziolinguistiko desberdinetan topatu ditzakegun hedabideak aztertu dira.

- Zein da hizkuntza gutxiagotuetako hedabideen papera bereziki gaur egun bizigaren mundu globalizatutan?

Hedabideetan alde batetik negozio alorra dago, hau da, produktua erakargarria egitea, gizarteak eskatzen duenari erantzutea, kon-

petitiboak izatea... Eta beste alorra hizkuntzaren normalizazioan betetzen dugun papera litzateke, hau da, ikuspegi kulturala. Kasu guztiak ikuspegi biak kontuan hartuta aztertu dira. Euskararen normalizazioan lanean gabiltzanok argi daukagu hedabideak ezinbestekoak direla hizkuntzen biziraupenerako. ...eta kitto! Euskara Elkarrea eta izen bereko aldizkaria ia sasoi berean sortu ziren. Aldizkaria elkartearen beste adar bat gehiago da, eta ezinbesteko tresna euskararen normalizaziorako. Hedabideek izan duten garapena izaugarria izan da. Lehen hiru aukera besterik ez zeuden: idatzizkoa, telebista edo irratia. Gaur egun, aldiz, sare-



ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus

rekin, askoz ere aldakorragoa den beste espazio paralelo bat zabaldu da Interneteko bideo plataformak, Podcastak... Espazio birtual paralelo horrek, ikuspegi kulturala galdu barik, negozio ikuspegi horretatik beti egunean egotea eskatzen digu. Erronka handia dago hor, baina egia ere bada herrialde batzuek beste batzuek baino askoz ere baliabide gutxiago dauzkatela.

- Beraz, munduko leku eta egoera desberdinetan hedabideek betetzen duten funtzioa azpimarratu da Kongresuan...

Hedabideek komunitateak sortzeko, hizkuntzaren estandarizaziorako eta entretenimendurako balio dute, eta euren esker hizkuntzek beste esparru batzuk irabazi ditzakete. Gaur egun gehien kontsumitzen dena entretenimendua da eta, fikzioari esker, egunerokotasunean hizkuntza horiek bereganatuta ez dituzten espazioak bereganatu ditzakete. Izan ere, gutxiagotutako hizkuntzen ezaugarrietako bat da esparru guztiak betetzen ez dituztela.

- Gustora etorri zara landu diren gaiekin?

Oso gustora. Ikuspegi zabal batetik ekimen desberdinak jarri dira mahai gainean, eta bakoitzak bere errealtatera zer egokitu dezakeen erabakitzea ahalbidertzen du. Oso esperientzia positiboa izan da. Kasu konkrituak aztertu dira, eta zerbait faltan bota baldin badut hizkuntza horien egoera soziolinguistikoaren aurretiko azterketa izan da. ...eta kitto! astekariari buruz egindako ikerketa aurkeztu zenean, jakinmina sortu zen, galderak egin ziren, Eibarrek zenbat biztanle dituen galdetu zu-



*Euskal Herritik
Edinburgora joandako
euskaldun batzuk.*

ten, adibidez. Hemen bertan, 40 kilometrorra, oso errealtate desberdinak aurkitu ditzakegu biztanle kopuru berdinarekin. Zarautzek biztanle kopuru antzerakoa izan dezake, baina errealtate soziolinguistiko oso desberdina da. Irizpide bakar batekin ezin daitezke ondorioak atera. Ghanakoek irratia sortu zuten jendea ez dagoelako alfabetizatua eta idatzizkoek ez daukatelako kasu horretan lekurik, baina ezin zuten internet bidez emititu, jendeak ez daukalako sarbiderik. Asko aldatzen dira gauzak errealtatearen arabera, eta hedabideen izaera bera ere gizarte horren ezaugarrien arabera izaten da.

- Zeintzuk uste duzu direla hedabideek ditugun erronkak?

Egokitzeko gaitasuna izatea, erakargarriak izatea eta sasoian sasoiko tresnak erabiltzea dira gure erronkak. Hedabide jeneralistentzat erronka handiak baldin badira, are gehiago hedabide txikiengatik. Gaur egun sarbidea daukagu munduko edozein komunikabidek egiten duena ikusteko eta, zentzu horretan, erakargarri izateko behar hori handiagoa da. Dikotomia handia dago hor: nola eutsi ikuspegi kulturalari, negozio ikuspegiak gero eta pisu handiagoa daukanean, hau da, itzeleko kompetentzia daukagunean.

AZAROAREN
16 AN

16:30 €AN ETA
19:00 €TAN



AZAROAREN
17 AN

16:00 €TAN
ETA 18:30 €AN

BIZI DANTZA



Purr, Porro, Mari, Motots

**BAZKIDEENTZAKO
aurrealmenta
urriaren 21etik 29ra**

...eta kitto!-n salgai
10:00/14:00 eta 16:00/19:30
Bazkide bakoitzeko
3 sarrera (7,5€)

**Urriaren 30etik
aurrera (8€)**

El Tío Palancas (J. Gisasola)
Denetik (Urkizu)
Gozoki (Bidebarrieta eta Sostoa)
Laes (Ziriako Agirre)
Internet bidez **Kutxabank-en**



NEREA BALDA
(idazlea)

“Irakurle bakoitzak bere ikuspuntutik eta esperientziatik irakurtzen du”

Nerea Balda izango da ‘Harixa emoten’ saioko hurrengo protagonista. Azaroaren 5ean, 19:00etan, Portalean egingo da solasaldia Irurtzungo idazlearekin ‘Atzerrian’ liburuaren inguruan. Baldaren lehen eleberria da ‘Atzerrian’, Londresen bizi den emakume euskaldun baten bizipenak kontatzen dituen lana.

- Liburuan ez da protagonistaren izena aipatzen. Zergatik?

Pertsonaiaren zati batzuk lehen pertsonan daude idatzita eta beste narratzaile batzuk ere badaude. Hasiera batean ez nuen protagonistaren izena aipatu behar izan, eta beharra somatu nuenean, pertsonaia nolakoa izango zen nuen buruan eta ez nuen aurkitu ondo egokitzen zitzaien izenik. Orduan, pentsatu nuen posible zela izenik gabe jarraitzea eta erronka moduan hartu nuen. Azkenean moldatu nintzen izenik gabe.

- Zure lehen eleberria da ‘Atzerrian’. Nola sortzen da liburu bat?

Nire lan luzeena izan da, nahiz eta oso luzea ez izan. Aurretik beste mota batzuetako testuak idatzi ditut, poesiak eta abar. Kasu honetan liburuaren argumentua zein izango zen pentsatu nuen eta zerbait luzeagoa egin nezakeela konturatu nintzen, baina hau edo bestea idatzi nahi nuela pentsatu barik.

- Beraz, idatzi ahala sortu duzu liburua?

Bai. Pertsonaiaren bilakaeraz gain, beste istorio batzuk nintzen buruan eta zerbait luzeagoa egiteko aukera ikusi nuen. Ez zen alde zuzeneko pentsatutako zerbait izan, idatzi ahala konturatu nintzen.

- Poesia ere lantzen duzu. Zertan sentitzen zara erosoago?

Inoiz ez dut jakin galdera honi zer erantzun. Beti idatzi izan dut, egunkariak eta horrelakoak. Gauzak idatziz jasotzeko za-

letasuna izan dut beti. Maila pertsonalean idazten nuen, neuretzat, eta horregatik hasi nintzen poesia idazten. Gero, narratzaile bidea hartzen hasi nintzen eta boladak izaten ditut. Azkenaldian, adibidez, poesia idatzi dut, narrazioa aparte lagata. Bolada eta gaien arabera doa kontua, gai konkretu bat tratatzeko estilo bat edo bestea izan daitekeelako aproposagoa.

- Hainbat sari jaso dituzu azkenaldian. Nola eragiten dizute?

Sariak bultzada eta laguntza eman didate. Beti kostatu zait idatzitakoa jendeari erakustea. Sarietara aurkezten zerenean jendeak ez daki nor zaren eta nire idatziek balio duten ala ez jakiteko modu bat da. Nire lanei irteera emateko modu bat izan da, pizgarri bat. Gainera, Getxoko Ramiro Pinilla lehiaketa irabazteari esker lortu dut ‘Atzerrian’ publikatzea.

- Irakurleekin izango duzu solasaldia Eibarren. Gustora sentitzen zara horrelakoetan?

Gutxi egon naiz irakurleekin, liburua maiatzean kaleratu zelako, baina aukera izan dudanean gauza atsegina izan da. Zuk idatzi egiten duzu, baina ez dakizu idatzitakoa noraino eta zenbateraino iristen den eta jendeari zer iruditzen zaion. Ideia eta helburu batekin idazten duzu, baina bitxia da jendearen interpretazioak ikustea. Irakurle bakoitzak bere ikuspuntutik eta esperientziatik irakurtzen du, eta bakoitzak oso modu ezberdinean ulertzen ditu gauzak. Hori oso polita eta aberasgarria da.

Zigor Astigarragak irabazi du Egoaziaren II. Argazki Lehiaketa

Kontsumo arduratsua inguruko azoka egin zuten zapatuan Untzagan eta bertan banatu zituzten Egoaziaren antolatutako II. Argazki Lehiaketaren sariak. Edizio honetako irabazlea Zigor Astigarraga izan da, Maite Beistegi, Maialen Lugarzaristi, eta Sua Al-



Aurreko zapatuan antolatutako azokaren irudia. Malen Jainaga



zugaray eta Garazi Txapartegiren aurretik. “Kontsumo arduratsua martxan jarri” goiburuari jarraituta antolatu dute aurtengo azoka, helburu bikoitzarekin: “Justizia soziala eta ingurumenaren zainketa oinarri modura dituen kontsumo eredu alternatiboa ezagutzera ematea, eta baita herritarren artean kontsumo arduratsua bultzatzea ere”.



Azken euskaldunaren istorioa antzeztuko dute gaur

Gaur taularatuko dute Tartean Teatroa konpainiakok "Ghero" antzeziana Coliseoan, 20:30ean. Euskaltzaindiaren mendeurrenaren harira sortutako lan honen trama 3.000 urtean hasten da: ospitale batean, azken euskalduna hil egiten da. Eta berarekin milaka urtetan biziraun duen hizkuntza. Hilzorian dagoen euskalduna zaintzen ari den mediku gaztea amaiera honen lekukoa izango da. Jokin Oregik zuzenduta, taula gainean Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Mikel Losada eta Ane Pikaza antzezleek jardungo dute. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Asier Errasti Film Laburren Jaialdia azaroaren 4an hasiko da

Azaroaren 4tik 8ra bitartean proiektatuko dituzte XX. Asier Errasti Film Laburren Jaialdiko laburmetraiak, egunero 20:00etatik aurrera Coliseo antzokian. Javier Agirresarobe sarietarako sailkatu diren lanekin batera, jaialdia antolatzen duen Plano Corto elkarteak aukeratutako beste batzuk emango dituzte eta, betiko moduan, sarrera dohainik izango da. Bestalde, aurten jaialdiaren 20. edizioa beteko dela-eta, Asier Errastiri omenaldia egingo diote jaialdiaren azken egunean, azaroaren 9an, 19:30ean sariak banatzeko hasiko den galan.

"Jateko moduko ipuinak", bihar umeen liburutegian

Bihar arratsaldeko 18:00etan hasiko da "Jateko moduko ipuinak" izenburuko ipuin-kontakizuna umeen liburutegian. Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan egingo den saioa 4 urtetik gorako umeentzat egokia da eta Maite Frankok eskainiko du. Antolatzaileen berbetan, "bere ipuin-kontalari saioetan, ahoz aho ibilitako ipuinak, argitaratu berriak zein egileak berak sortutakoak jolas, asmakizun eta dramatizazioekin nahasten dira, barruan umore, misterio, mezu positiboak eta kresala ugari daramatzatelarik. Ipuin hauek, elikadura dugu ardatza, aitzakia, irtenbide edota galbidea, bizirautea jokoan baitago. Otorduetan kontatzeko moduko istorioak, zapore ona uzten dutenak". Sarrera doan izango da.



Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa

Domekan egingo da XLII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. Nahi duten guztiak har dezakete parte eta pintura-teknika guztiak onartuko dituzte. Izena emateko, Armagintzaren Museora (Portalean) joan beharko da, 09:00etatik 11:00etara, eta margotuko duten mihise edo paperean zigilua ipiniko diete antolatzaileek. Amaitutako lanak, berriz, 14:00etarako entregatu beharko dira. Irabazleentzat sariak egingo dira.



Irunen abestuko du Sostoa

Sostoa Abesbatzak kontzertua emango du bihar Irunen, hango Betikoametsa Abesbatzak gonbidatuta. Pasionistas elizan izango da emanaldia, 19:30ean eta ordubeteko iraupena izango du. Mirengu Plazaolak zuzenduko du eta pianoan Isabel Laspiurrek lagunduko die. Eskainiko duten egitaraua honakoa da: "Ave Maria" (F. Schubert), "Missa Johannes Paulus II" (Josu Elberdin), "Hallelujah" (Leonad Cohen), "Kantauri" (Josu Elberdin), "Amor de mi alma" (Z. Randall Stroope), "El mar muerto" (Dante Andreo), "Te llevaré" (Albert Alcaraz), "A tu lado" (Javier Busto), "Die Gedanken sind Frei (für SBA Chor)" (konp. D.W. Solomons), "Boga Boga" (J. Guridi) eta "Mutil Txaleko Gorri" (Junkal Guerrero). Bestalde, azaroaren 30ean Irungo abesbatza Eibarrera kantatzera etorriko dela aurreratu dute.

Musika Bandaren kontzertua

Domekan, 12:30ean, Cielito Musika Bandaren kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honakoak eskeiniko dituzte: "Agüero" (Jose Franco), "La Bruja" (Jota, Ruperto Chapi), "Unchained Melody" ('Ghost', Alex North), "Remember Me" ('Coco', K. Anderson-Lopez) eta "The Phantom of The Opera" (Andrew Lloyd Webber). Ez badu euririk egiten, musikariak kalejiran irtengo dira 11:15ean.

Bertsolari Txapelketako hirugarren final-laurdena jokatu da bihar Coliseoan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren final-laurdena jokatu da bihar Eibarren, Coliseo antzokian, 17:00etatik aurrera. Kantuan arituko diren bertsolariak Jon Maia Soria, Gorka Maiz Alustiza, Jokin Uranga Isuskiza, Unai Muñoa Amundarain, Felix Zubia Olaskoaga eta Mikel Tapia Aierbe dira. Aurkezle lanak, berriz, Itziar Etxezarreta Arakistainek egingo ditu eta epaimahai-kideak hurrengoak izango dira: Maite Sukia Olano, Zigor Leunda Eizmendi, Amaia Otxotorena Gamio, Oihana Aranguren Etxaniz eta Mikel Beloki Urkizu. Idazkari lanetan, berriz, Joxemari Altuna Berridi eta Ane Errazkin Aranburu arituko dira. Bertsolariek egin beharreko lanak, bestalde, honakoak izango dira: binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso; binaka, gaia emanda, sei puntuko moztzean hiruna bertso; binaka, gaia emanda, hamarrek txikian hiruna bertso; eta, kartzelako proban, bakarka, gaia emanda, nahi



den doinu eta neurrian, hiruna bertso. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean eta, aurretik agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira zapatuan, 16:00etatik aurrera. Txartel arruntak 12 euro balio du (gazteen-tzat 5 euro eta bazkideentzat 9 euro).

Aukeratu dute San Andres jaietarako kartela



Ana Salegui donostiarraren "Bertako piperrak" kartelak irabazi du "Sanandresak Eibarren" kartel lehiaketa. Lehiaketaren epai-mahaia Leire Kareagak, Iratxe Unanuek eta Marina Barrenak osatu dute eta, hartutako erabakiaren arabera, 11 eta 14 urte bitartekoen artean Malen Jurado eibartarra (11 urte) izan da irabazlea, "Barazki behia" lanarekin, eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, Carla Marron eibartarrak (10 urte) lortu du saria, "Sanandresetako alkondara" kartelarekin. Helduen mailan 27 kartel aurkeztu dira, 11 eta 14 urte bitarteko kategorian 41, eta 10 urtera arteko kategorian, berriz, 25 lan.



Artisten Elkarte Toledon

Eibarko Artisten Elkarteko kideek eta beste hainbat lagun-ek Toledo bisitatu zuten aurreko asteburuan. Hogei urte dira azkenekoz bertara egindako azken txangotik eta Katedrala eta El Grecoren Museoa bisitatu zuten, "Erdi Aroan elkarbizi izan ziren hiru erlijioetako beste aztarna batzuen artean".

Bertso-paper lehiaketarako epea zabalik dago

Eta azaroaren 4ra arte egongo da lanak entregatzeko aukera. Urteroko moduan maila bi ditu lehiaketak: 16 urtetik beherako Ei-



Aurreko edizioetako bateko sarituak eta bertsolariak Portalean.

barko ikasleek bertso bat edo bi kopla aurkeztuko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Lanen hiru kopia ...eta kitto! Euskara Elkartera bidaliko dira (Urkizu 11, solairuartea) gaitzenez sinatuta, eta gutunazal itxi batean egilea identifikatzeko datuak.

Gazteen mailako irabazleak liburua eta txapela irabaziko ditu, eta bigarrenak liburua eta plaka. Helduen mailako irabazleak 300 euro eta txapela eta bigarrenak 250 euro eta plaka. Sarituek San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak, azaroaren 24an, domeka, Portalean, eta ondoren hasiko da Jaialdia, arratsaldeko 19:00ak bueltan. Aurten bertsotan jardungo duten bertsolariak ondorengoak izango dira: Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Maddalen Arzallus. Gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Sarrerak azaroaren 11tik aurrera jarriko dira salgai, ohiko lekuetan.



Urriko Jaiak MALLABIAN


Gaurtik domekara arte egitarau betea eskaintzen du Mallabiko Urriko Jaiak. Txupinazoaren ondoren, gaur pilota-finala, dantzaldi gidatua eta oilasko-pintxoak izango dira, musika emanaldien aurretik: 21:00etan INGOT eta EZ3, 23:00etan Mugi Panderoa eta 01:00etan DJ Ander. Bihar goizean emakumezkoen frontenis txapelketako finalak jokatuko dira, eguerdian Mallabiko IV. Arda Ferixie egingo da eta, herri-bazkaria eta gero, Dunbots txarangak alaituko du giroa. Gaueko 22:30etik aurrera Nogen eta Kaotikoren rock kontzertua izango da; ondoren, Txurru. Domekan, amaitzeko, futbito partiduak izango dira goizez eta antzerkia eta mus txapelketa arratsaldean.



1er Errebeldeak Blind Rock Festival ARRASATEN

Biharko egun osoko egitaraua prestatu dute jaialdi horretan. Goizez, 10:00etatik 12:00etara haurrentzako joalasko egongo dira eta 12:00etan dastaketa, Angel Palaciosen eskutik. Arratsaldez, bestalde, 19:00etan manifestazioa eta 20:00etatik aurrera hiru kontzertu eskainiko dira herriko plazan: 20:00etan Ibon Casas eta The Blind Rock Band, 21:15ean Herio eta 22:00etan Def Con Dos.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

hildakoak

- Jose Arizaga Larreategi. 94 urte. 2019-X-17.
- Trinidad Pipaon Duque. 101 urte. 2019-X-18.
- Fidel Saez Aginaga. 85 urte. 2019-X-21.
- Pablo Gutierrez Gutierrez. 93 urte. 2019-X-21.
- Jose Sarasua Gorrotxategi. 96 urte. 2019-X-22.
- Juan Luis Mardaras Intxausti. 67 urte. 2019-X-23.

jaiotakoak

- Kiara Nerea Litardo Barahona. 2019-IX-12.
- Sara Bonzaddagh Samraoui. 2019-X-21.

AURREKOAREN EMAITZA

3	8	1	7	6	5	4	2	9
9	2	5	4	3	8	7	1	6
4	6	7	1	2	9	3	5	8
1	7	3	5	8	6	2	9	4
6	5	9	2	4	1	8	3	7
8	4	2	3	9	7	5	6	1
7	1	8	6	5	2	9	4	3
5	9	4	8	1	3	6	7	2
2	3	6	9	7	4	1	8	5

SUDOKUA

			3	6	7			
					3	4		
			8	4	5		1	
2	4					1		
7	9						3	6
		8					9	2
4		6	7	2				
	8	2						
		7	6		5			

farmaziak

- Barixakua 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 26
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 27
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Astelehena 28
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 29
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 30
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 31
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 1
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Zapatua 2
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 3
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Astelehena 4
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Martitzena 5
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Eguaztena 6
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 7
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Barixakua 8
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI -2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

Barixakua 25**EIBARKO KANTUZALEAK**

17:00. Abesbatzaren emanaldia. San Andres zaharren egoitzan.

19:30. Kantu-kalejira.

GAZTAREN ASTEA

19:00. Debabarreneko gazten kata. Doan. Untzagako jubilatutuetxean.

ERAKUSKETA

19:00. Indalezio Ojanguren XXXII. Argazki Lehiaketako sariak banatzeko ekitaldia eta erakusketaren inaugurazioa. Portaleko erakusketa gelan.

ANTZERKIA

20:30. "Ghero" (Tartean Teatro). 10 euro (7 euro, Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 26**BERTSOAK**

17:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdena. Coliseoan.

**ZAPATUKO IPUINA**

18:00. "Jateko moduko ipuinak", Maite Frankoren eskutik. 4 urtetik gorako umeentzat. Doan. Umeen liburutegian.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Aladdin" filma. Doan. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

URTEURRENA

18:00. Ipuuruako jubilatutuetxearen 34. urteurrena ospatzeko jai. Ipuuruako jubilatutuetxean.

Domeka 27**UDAZKENTRAIL**

08:30. Udazkentrail mendi irteera. Klub Deportibo paretik abiatuta.

LEHIAKETA

09:00. XLII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketarako izen ematea, 11:00ak arte. Margolanak 14:00etarako. Armagintzaren Museoa (Portalean).

GAZTAREN ASTEA

10:00/14:00. Gazta azoka. Erakustaldiak eta tailerrak:

10:00. Artile lan erakusketa.

11:00/14:00. Artile mozketa.

11:30 eta 12:45. Gazta egiteko prozesua.

Ardi haragi gisatuaren dastaketa. Untzagan.

URTEURRENA

12:00. Ipuuruako jubilatutuetxe hildako bazkideen aldeko meza. San Pio X.aren elizan.

14:30. Bazkaria eta 85 urteko bazkideei omenaldia. Untzaga Plaza hotelean.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Eibarko Musika Bandarekin (euririk ez badu egiten, 11:15ean kalejira). Coliseoan.

Astelehena 28**ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatutuetxearen Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 29**IKASTEN**

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:30. "Azkar eta goxo" sukaldaritzat tailerra. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

SOLASALDIA

19:00. Jon Iñarriturekin berbetan, Eibarko EH Bilduren eskutik. Bilgunean.

Eguaztena 30**IKASTEN**

08:10. Ibilaldia: Plentzia-Armitza (etapa gogorra). Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik.

BISITA GIDATUA

18:30. "Ertibil Bizkaia 2019" erakusketan, euskeraz (19:30ean gazteleraz). Izen-ematea bertan. Portalean (erakusketa aretoan).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19:15. Nagusilan elkartearen jardueri buruzkoa. Untzagako jubilatutuetxean.

Eguena 31**HALLOWEEN JAIA**

17:30. Eskulan tailerrak eta mini-diskoteka, umeentzat. Koko-jantzita doazenentzat opari-sorpresa. Doan. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutuetxean.
19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Astelehena 4**ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatutuetxearen Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

LABURMETRAIAK

20:00. XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko ikus-entzunezkoen proiektzioa. Doan. Coliseoan.

Martitzena 5**IKASTEN**

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

LABURMETRAIAK

20:00. XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko ikus-entzunezkoen proiektzioa. Doan. Coliseoan.

**Eguaztena 6****MAHAI-INGURUA**

18:00. "Altoa: 1995-2020 Elkartegintzaren lorpena" mahai-ingurua. Jarduera irekia eta doakoa. Andretxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

LABURMETRAIAK

20:00. XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko ikus-entzunezkoen proiektzioa. Doan. Coliseoan.

Eguena 7**KALEETAN KANTUZ**

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutuetxean.
19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

LABURMETRAIAK

20:00. XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko ikus-entzunezkoen proiektzioa. Doan. Coliseoan.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, LAIA, etzi 8 urte beteko dozuz-eta. Egun politta pasa! Famelixakuen eta, batez be, Telmo zure nebaren partez.



Zorionak, IGOR, etzi 6 urte beteko dozuz-eta. Ondo-ondo pasa! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alainen partez.



Zorionak, EDURNE!!!, astelehenian 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Asierren partez.




Zorionak, LANDER bixar 3 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Aiora eta Izaroren partez.



Zorionak, OINATZ, bixar 7 urte haundi beteko dozuz-eta! Famelixa guztiaren, eta, batez be, Lur, Bernat eta Naiken partez.




Zorionak, MIKEL, gaur 15 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna! Famelixaren eta lagunaren partez.



Zorionak, KEPA, atzo 10 urte bete zenduazelen-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, EDER, astelehenian 6 urte! Musu haundi bat amama, aitite, tia eta Izaro eta Aiurren partez.




Zorionak, IAN, atzo 5 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, IRATI Zarraua, azaruaren 4an 13 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu orain arte bezain alai eta jator.



Zorionak, EMMANUEL eta ANE. Musu haundi bat famelixaren partez. Maite zaituegu.



Zorionak, MAIALEN, domekan 7 urte egingo dozuz-eta. Besarkada eta patxituak etxeko guztion partez. Neska haundi!!

Erakusketak

Urriaren 31ra arte:

- ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK (El Ambigü taberna)
- PEDRO ARRIOLAREN "NAPOLES" ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)
- DEPORTIBOKO PILOTA TALDEAREN ARGAZKIAK (Klub Deportiboa)

Azaroaren 17ra:

- "ERTIBIL BIZKAIA 2019" IBILTARIA (Portalea)

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

26an: 22:30

27an: 20:00

28an: 20:30

"Día de lluvia en Nueva York"

Zuzendaria: Woody Allen



(1 ARETOAN)

26an: 17:00, 19,45

27n: 17:00, 20:00 (ANTZOKIA)

28an: 20:30 (ANTZOKIA)

"El silencio de la ciudad blanca"

Zuzendaria: Daniel Calparsoro



(2 ARETOAN)

26an: 19:45, 22:30

27an: 17:00, 20:00

28an: 20:30

"El asesino de los caprichos"

Zuzendaria: Gerardo Herrero



(ANTZOKIAN)

26an: 17:00 (2 ARETOA)

27an: 17:00 (EUSKERAZ)

"Asto erregea"

Zuzendaria: Aziz Jindani



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komunak. 85 m². Berogailuarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Bi trasteleku salgai Julian Etxeberria kalean. 7'80 eta 9'64 m². Tel. 667-635797.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Tel. 943-700173 eta 629-453397.

4. Lana

4.1. Lan bila

Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Esperientzia. Tel. 632-506382.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-330459.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-378568.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 661-718993.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Tel. 617-896989.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 666-197831.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 641-630794.

– Mutila eskaintzen da pintore moduan, igeltsero-laguntzaile bezala, etabar. Tel. 632-636393.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Orduka. Tel. 632-098382.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-980531.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Ziurtagiriarekin. Tel. 641-426543.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 688-871659.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 602-017736.

– Mutila eskaintzen da igeltsero, pintore edo tabernari lan egiteko. Tel. 661-718953.

– Emakumezkoa eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 632-515023.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-768803.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. 9 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-514085.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduzko malgua. Tituluduna, esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-514086.

– Emakumezkoa eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 631-975260.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-430110.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-233473.

– Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 603-346659.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 642-829490.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-280518.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 15:00etatik 19:00etara. Tel. 617-628137.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-129530.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-209034.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ospitalean ere. Orduka. Tel. 688-959575.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 665-071463 eta 659-240147.

– Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.

– Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, pegorak, sozeidadeak... Tel. 675-965130.

– Gizonezkoa eskaintzen da tailerrean piezak mekanizatzen lan egiteko. Tel. 632-569245.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 632-700803.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-140707.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-881161.

– Neska eskaintzen da etxeak, tabernak edo soziedadek garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 605-659535.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.

– Emakumezkoa eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Ziurtagiriarekin. Tel. 681-013032.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 622-142679.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, pegorak garbitzeko eta pintore jarduteko. 21 urteko esperientzia. Tel. 664-819748.

– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-223075.

– Emakumezkoa eskaintzen da ospakizun bereziarako sukaldari moduan: bazkariak, meriendak, postreak... Janari marokarra. Tel. 698-308503.

4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar da. Bidali curriculum honako helbidera: bar.oferta-empleoeibar@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakasle partikularra behar da heldu bati trikitia jotzen irakasteko. Tel. 615-784575.

5.2. Eskaintzak

– DBH edo Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Matematika, Kimika, Fisika, Lengoia eta Ekonomia. Tel. 678-987827.

– Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erreuma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617-265575. Avelina.

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai KONA Hibrido elektriko berria

Bluelink
konektagarritasunarekin



MOVE Smart programa

hileko **220** €-tik aurrera

220€ko 47 kuota
Sarrera 6.199,00€
Azkeneko kuota:
11.124,94€
T.A.E. %7,82

- + 5 urterako bermea km-mugarik gabe
- + 5 urterako errepideko laguntza
- + 5 urterako mantenimendua
- + 5 urterako mapen aktualizazioa
- + Itzultze konpromisoa
- MyHyundai

Hyundai Kona Hibrido elektriko Berriak gidatzeko gozamina beste maila batera igotzen du. Teknologia adimentsuari eta Bluelink konektagarritasun sistemari esker, zure smartphonearekin kontrolatu ahalko duzu une oro. Gainera, **Find May Car** sistema berritzailearekin, non aparkatu duzun gogoratzen ez duzunean aurkitu egingo duzu autoa. Kona Hibrido elektriko Berria Hyundai Kona Gama osatzeraz dator, eta **Espainiako 2019ko Urteko Kotzerik Onena** izendatu dute. Kona familiako kide berriak kotxe hibrido batengandik espero duzuna baino gehiago eskaintzen dizu.

Baina hau hasiera besterik ez da. Prest zaude? Etorrizun hibridoa zain dugu. Zer izango da hurrengoa?

ABC 2019 Con etiqueta ECO

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

Erakusketa berria
ARRASATE
San Andres Auzoa, 6
943 79 70 06



5 URTE MUGARIK GABEKO BERMEA

8 URTE BATERIA BERMEA

Hyundai KONA HEV Gama: CO₂ emisio konbinatuak (gr/km): 114-122. Kontsumo konbinatua (l/100km): 5-5,4. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak. CO₂ emisioak (gr/km): 90-99 NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortutakoak.

Hyundai MOVE Smart finantziario adibidea Kona HEV 1.6 GDI 104kW (141CV) KLASERako: Prezioa 23.890,00€. Sarrera 6.199,00€. Eskatutako kopurua 17.691,00€. Formalizazio-komisioa (%3): 530,72€ eskura. 48 hilabeteko epea. 220€ko 47 kuota eta azkeneko kuota 11.124,94€koa. TIN %6,50. T.A.E. %7,82. Zehaztutako kopuru osoa 21.995,07€. Eskaintza finantziarioa Banco Cetelem S.A.U.K.a atzeratu eta smart bihurtu da. PSP gomendatua: Penintsula eta Baskarietan: BEZ, gantziak, matrikulario-erregia, sustapen-dekretua, kontzesionarioaren elkarpena eta mantenimendu-erakunde berrak. Hyundai Adibidea Plana aplikatu daiteke erabilgarri auto baten truke, 6 hilabetetarako. Hyundai berri bat erosten duen bazterrearen titulaturagonean. Finantziarioari lotutako gastuak ez daude berne (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak); www.hyundai.es/configurador webgunean ikusgai. Eskaintza 2019/10/31ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: Kona HEV Style. Mantenimendua litaligaiaren finantziarioari lotua. Hyundai Motor España S.L.U.K.a bere azken bezeroei eskaintutako kilometro-mugarik gabeko 5 urteko bermea eta tentio alfueta baterietarantz 8 urtekoa edo 200.000 kilometrokoa (aurrena gertatzen dena) Hyundaiaren sare ofizialak salduzako Hyundai litaligaietan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.



LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

%100 Subentzionatuak

70 ikastaro baino gehiago webgunean: **AUKERATU ZUREA!**



IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
Planoen interpretazioa III. Multzok	25	2019/11/04	SIEMENS OPERATE fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2020/01/07
SOLID EDGE II. Multzok	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
SOLIDWORKS II. Multzok	30	2019/11/25	Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak	16	2019/11/04
NX gainazalak	30	2019/12/02	Makinan		
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Hidraulika	24	2019/11/04
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko Makina)	20	2019/11/04	Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/04
SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: lagundutako programazioa SHOPMILL	20	2019/11/04	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	70	2019/11/11
SIEMENS Fresaketa: prestaketa eta erabilera	35	2019/11/04	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1.maila	40	2019/11/11
FANUC fresatzeko makina: prestatzea eta erabiltzea	35	2019/11/04	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
Ohiko fresagailua	80	2019/11/06	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
SIEMENS: programazio parametrikua	15	2019/12/02	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2019/12/09	Neumatika	24	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	Mekanizatutako produktua egiaztatzea	30	2019/11/04
			Kalibratze plana	16	2019/11/18




RESTAURANTE LASA

MONUMENTU ARTISTIKOA

ERA GUZTIETAKO BANKETEAk OSPATZEKO toki bikaina / 250 LAGUNENDAko JANGELA

www.restaurantelasa.es
943 76 10 55



Ozaeta Jauregia -BERGARA Tel. 943 76 10 55 mail: reservas@restaurantelasa.es